Elgoibar - 974. zenb. XXIV urtea - 2015-12-18

BARREN

TOKIKOM

# Lantegien arrastoan



aldaz
hortz klinika

San Bartolome 22 - 20870 Elgoibar
Ola Kalea 10, behea - 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 366 377

ALDAZ HORTZ klinikako lantaldeak gabon zoriontsuak opa dizkizue.






# Hori da geurea

Horrelakoak dira gure ekoizleak

Profesional handiak, guretzat elikagai osasungarri, samur eta naturalak ekoizteaz gain, gure osasuna, paisaia eta kultura zaintzen dutenak.

Horregatik, elikagai hauek kontsumitzea
**ona da denontzat.**

**Goi mailako kalitatea eta jatorri deitura duten elikagaiak**



hazi

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BARREN AZOKA





**ARANTXA ETA MARIAN**
FRUTA-DENDA
Tel.: 943 744 440
Zure fruta eta barazkia dei batean etxean!

**AMAIA**
FRUTA-DENDA
Tel.:635 704 712
Etxeko banaketa, fruta eta barazki freskoak zure etxean!

**PEPI ETA MILA**
FRUTA-DENDA
Tel.: 943 744 295
Etxeko salmenta zuzena!

**MARY**
HARATEGIA
Tel.: 943 743 681
Baserriko okela

**M. ANGELES**
FRUTA-DENDA
Tel.: 605 674 428
680 989 487
Zure etxera banatzen dugu!

**5 urdaiazpiko Iberiko eta ardoen zozketa!**
**Abenduaren 23an zozketatuko ditugu!**

*Gabon zoriontsuak!*







## INMA MUGERTZA

### *“Kiotokoaren ostean berdin baldin bagaude, Pariskoaren ondoren, zerbait aldatuko da?”*

Kaixo, Ander! Oraingoan ere badago, kezka baino, egonezina eragiten didan gai bat: aldaketa-klimatikoa edo, hobeto esanda, *Parisko klima-aldaketari buruzko goi-bilera* izenburua daraman itzal-antzerkia. Azken bi asteotan, komunikabideek etengabe hitz egin dute gaiaren inguruan eta gogaituta nago.

Kiotoko protokoloa 1997ko abenduan sinatu bazen ere, 2005era arte ez zen abian jarri. Orduko helburua, negutegi-efektua eragiten zuten sei gasen emisioak murriztea zen. 187 herrialdek berretsi zuten protokoloa, baina Estatu Batuek ez, berotegi-efektua eragiten duten gasen ekoizle nagusia izanik. Burla hutsa! Orain, hamarkada bat pasa ondoren, gauzak berdintsu daude.

Azken egunotan antzokia Paris izan da, eta atze-oihala Eiffel Dorrea. Helburua, ordea, Lurreko tenperaturak 1,5 gradutik gora ez egitea, klima-aldaketaren hondamendiak saihesteko. Oso polita eta modernoa, bai, baina susmagarria ere bai, ezta? Kiotokoaren ostean berdin baldin bagaude, Pariskoaren ondoren, zerbait aldatuko da? Zuk ze uste duzu, Ander? Ni ez nago oso baikor.

195 herrialdetako ordezkariek Parisen “lehenbailehen isuriei muga bat jartzeko” konpromisoa hartu dute. Mendeko bigarren erdian planetak xurgatu ditzakeen baino gas kutsatzaile gehiago ez isurtzeko helburua proposatu dute. Aitzitik, 2050ean isuriak murrizteko helburu bat zehaztea baztertu dute, 2100ean ikatzen ekonomiak desagertzeko helburua ere alde batera utzita. Hauxe izan da flipatuta utzi nauena, jota. Ikatzen ekonomia mantentzea eta isuriak murriztea ez dira bateragarriak! Parisen ere erabaki eraginkorrak faltan. Esandakoa, antzerki hutsa!!!





## ANDER IZAGIRRE

### *“Begi bistakoak dira politikariek enpresa handiekin duten harremana eta horien mesederako proiektu kutsatzaileak. Ezin ahaztu eraiki nahi duten errauskailua”*

Kaixo, Inma! Azken asteotan behin eta berriz izan ditugu Parisko goigailurraren albisteak, bai. Eta aitortu behar dizut espero nuela gai honi buruz hitz egingo zenidala. Asmatu dut beraz.

Bat nator aipatzen dituzun kontu guztiekin. Orain arte erakutsitakoak ikusita, zaila egiten zait akordio hori beteko dutela sinestea. Gainera, klima aldaketan eragin handia duten enpresa handienek goi bileraren parte handi bat (%20) finantzatu dutela jakiteak ere ez dit sinesgarritasun handirik ematen.

Helburu gisa bi gradu ez igotzea akordatu dute. Zuk aipatutako gradu eta erdi ez igotzea asmoa omen. Hau da, helburua betetzeaz gain, hobetzen saiatuko direla sinestu behar.

Batzuetan, politikariek gizartearen esku uzten dute ardura osoa. Garraio publikoa erabili behar dela, energia gutxiago kontsumitu behar dugula… eta gauza hauek egitea komeni da, noski, baina beraiek zer egin asko daukatela ezin ukatu. Begi bistakoa da, esaterako, enpresa handiekin duten harremana. Hauen mesederako bultzatzen dituzten proiektu kutsatzaileak kasu. Urrutira joan gabe, Euskal Herrian ere baditugu horrelako proiektuen adibide asko. Ezin ahaztu eraiki nahi duten errauskailua…

Agintariek erregai fosilen alde egiten jarraitzen dute, energia berriztagarrien aldeko autua egin gabe, eta gauzak horrela, alperrik dabiltza akordio hauek onartzen. Diru irabaziak beti egongo dira ingurumenaren gainetik eta gizartearen ekintzen ondorioak zuzenean jasan ezean, ez da ezer aldatuko. Gure ondorengoek jasateak axola ez duela dirudi.

Eskutik helduta eskuak gorantz dituztela atera dute “garaipen” argazkia. Antzerki hutsa bai!



EDURNE IZAGIRRE Psikologoa

# Nahi dut!

Erantzunak ematen saiatzea baino nahiago dut galderak sorraraztea. Kontsumo arduratsura bultzatu nahi zuen hizlari batek irratian esan zuen atzo (ez dizkiot hitzak lapurtu nahi, baina ez nuen bere izena entzun): "Zerbait erostera goazen bakoitzean etorkizuneko gizarte eredua sortzen ari garela kontziente izango bagina aldatuko lirateke gauzak".

Gabonak datoz eta guraso garenok jada hasi gara entzuten Olentzeroarentzako eskakizun zerrenda. Baina ohartzen naiz ia egunero aldatzen dela, lagun batek hau duelako nik ez dudana, edo telebistan iragarkia ikusi eta txunditurik geratu delako...

"Nahi dut!!!", entzuten dugu ilusio eta indar horrekin eta hasten gara pentsatzen gabonetan eskaturikoa ekarri ez zieten haurren traumen inguruko pelikulak, gure haurrak ilusio infantil hori mantentzeko gure nahia, oparia zabaltzean izango duen euforia aurpegia.....

*"Jostailuek inoiz ez dute betetzen iragarkiak sorturiko lilura, eta frustrazio iturri dira"*

Baina konturatzen al gara manipulazio mediatikoaren biktima direla? Konturatzen al gara gizarte kontsumista eta matxista honek saldu nahi diguna erosten gabiltzala? Konturatzen al gara gure haurren identitatearen oinarriak finkatzen ari garela kanpo estimuluei erantzunaz eta ez barne grinari?

Ezagutzen ditugu gure seme-alabak, ilobak, bilobak... Mesedez, oparia erosterakoan gogoratu txotxongilo ikustaldi hartan zuen liluraz, mendi buelta egitean zizare mota ezberdinak bilatzeko zuen grinaz, sukaldeko trapu batekin jantzi bat inprobisatu zuenean nabari zitzaion bere buruarekiko harrotasunaz. Eta horren arabera egin oparia, ez gabonetako jostailu dendek egiten duten kanpainaren ondorio den "nahi" artifizial horri erantzunaz.

Euren benetako zaletasunei erantzun, sorkuntza piztu, gaitasunak sakondu. Geuri kosta egiten zaigu heldu izanik zer nahi dugun lehenik pentsatu eta ondoren ozenki esatea, ba pentsa nortasuna osatu gabe duen haur batek. Jostailuek inoiz ez dute betetzen iragarkiak sorturiko lilura eta frustrazio iturri dira, gehiago nahi izateko, nahikoa ez denaren sentipenak eramaten baikaitu gehiago eskatu eta erostera.

Heldu gisa lagundu behar diegu kontsumo gizarte honetan maneiatzen euren nortasuna barrura begira finkatzen eta ez kanpo estimuluei erantzunaz.

BARREN

ARGITARATZAILEA: ELGOIBARKO IZARRA

**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - *barren@elgoibarkoizarra.eus***
***www.barren.eus***
**Publizitatea: 943 743 704 - *barren.publi@elgoibarkoizarra.eus***

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Oier Narbaiza KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi, Oier Narbaiza HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Leire Alberdi MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Aihnoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:

Elgoibarko Udala
elgoibar
Mendaro
Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak*
*(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.eus*

### 732, 13,46, 31...

Aupa, gazte! Esan al dizu inork Elgoibarren 732 etxe huts daudela azken datuen arabera? Eta herriko etxe guztien %13,46 dela hori? Hau da, bailarako, Gipuzkoako eta EAEko batezbestekoaren gainetik.

Badakizu gure herrian hiru logelako etxe baten alokairuak 600 eurotik gora balio duela, eta eskaintza oso urria dela? Badakizu nor aberasten den zure hipotekarekin?

Ba al dakizu aldi berean 2001etik 1.000 etxebizitzatik gora eraiki direla eta indarrean den HAPOak beste 1.200en eraikuntza aurreikusten duela? Eta gazteok batez beste gurasoen etxetik 31 urterekin ateratzen garela, hori ere kontatu al dizute?

Baina garrantzitsuena, badakizu etxebizitza alternatiba eta eredu desberdinak egon badaudela? Ikasten, lantzen, amesten jarraitu nahi dugu; Elgoibarren ere hamaika aukera dauzkagu horretarako. Jaiki eta ekin lanari!

**Jaiki**

### ARGIBIDEA

Barrenen 973. zenbakian Tertuliak programari buruzko albistean Udal Euskaltegia ez genuen aipatu programaren bidelagun moduan. Horregatik barkamena eskatu nahi genuke.

**BARREN astekaria**

### OHARRA

Gabonak direla-eta, datorren astean ez dugu BARREN astekaririk argitaratuko. Hurrengo zenbakia urtarrilaren 8an kaleratuko dugu.

Bestalde, domekan, abenduaren 20ko hauteskunde gauean, BARRENeko lan taldeak jarraipena egingo die Elgoibarko eta Mendaroko emaitzei, eta *barren.eus* webgunean argitaratuko ditugu ahalik eta lasterren.

Ondo amaitu ezazue urtea eta hobeto hasi hurrengoa!

**BARREN astekaria**



## *Victoria Zabaleta Barrenetxea*



2015eko abenduaren 16an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Angel Arocena Etxabe*

2015eko azaroaren 22an hil zen.

## *Maria Teresa Usobiaga Osa*

2015eko abenduaren 8an hil zen.



***Handienak ez dira***
***toki gehien betetzen dutenak,***
***joaten direnean***
***hutsune gehien uzten dutenak baizik.***
***Goian beude.***

# San Lazaro egoitzaren lizitazio prezioak lan baldintzak kaltetu ditzake, ELA sindikatuaren arabera

San Lazaro egoitzari dagokion negoziazio kolektiboa blokeatuta dagoela salatu du ELA sindikatuak. Foru Aldundiaren menpeko egoitza honen lizitazioan, %5eko defizita dago datorren urtean aplikatu beharreko tarifetan, sindikatuaren arabera. "Baldintza-orrietan Kudeaketa Integral Pribatuaren eredua finkatu da, ez dago benetako kontrol eraginkorrik, eta aipaturiko egoitzetako plantilen gutxieneko bermeko hitzarmen aplikagarria 2005-2008koa izango da, eta ez azken akordio edo hitzarmena", jakinarazi du ELAk.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpeko Kabia erakundeak Elgoibarko eta Villabonako egoitzak gestionatzeko baldintza plegua atera du, zeregin batzuk kontratatutako enpresek egiteko. ELAren iritziz, lan baldintzen kalterako izan liteke lizitazio prezioa eta hasierako prezioaren eta enpresak bere gain hartu beharreko gastuen artean %5eko desfasea dago. Sindikatuak adierazi du prezio horiekin 2008ko lan baldintzak bermatuko liratekeela eta ez 2015eko apirilaren 26ko hitzarmenean jasotakoak.

Gipuzkoako erresidentzietako, eguneko egoitzetako eta gizarte ekintzako langileak mobilizatu zituen sindikatuak joan den ostiralean Donostian, Foru Aldundiko egoitzaren aurrean. Hitzarmen duin baten aldeko aldarria eraman zuten kontzentraziora. Sindikatuak nabarmendu zuen ez duela inolako atzera pausorik onartuko sektore honetako langileen eskubideetan.



Beste eskaera batzuen artean, sindikatuak eskatu dio foru erakundeari aurkeztutako baldintza-orriak erretiratu ditzan.

Izan ere, Udalaren ardurapean zegoen San Lazaro egoitza, baina apiril amaieran Gipuzkoako Foru Aldundiaren menpe gelditu zen.

# Herrian erostearen garrantzia nabarmendu dute Elgoibarko Txankakua elkarteak eta Mendaroko Udalak




Elgoibarko Txankakua merkatari elkarteak eta Mendaroko Udalak herriko merkataritza suspertzeko kanpaina bana jarri dute abian. Txankakuak ikus-entzunezko ekoizpen bat egin du *Elgoibarren bizi-erosi, herriak irabazi* lelopean. Gabonetako kanpaina ere jarri du Txankakuak. Batetik, bazkide diren dendetako sarrerak apaindu dituzte girlanda berdeekin eta faroltxo zuriekin. Eta, bestetik, bezeroen artean 1.800 euro banatuko ditu, erosketa baleetan (500 eurokoko bi sari eta 100 eurokoko zortzi sari). Urtarrilaren 7an egingo dute zozketa.

Bestalde, Mendaroko merkataritza suspertzeko, aurten ere erosketa zozketekin jarraitzeko asmoa iragarri du Udalak. Eguberrietan, gainera, oparitxo bat, poltsa berrerabilgarri bat, banatuko diete mendaroarrei, *Mendaron Bizi Erosi* leloarekin.

# Juan Mari Mendizabal etxera bueltatu da kartzela zigor osoa bete ondoren




Juan Mari Mendizabal elgoibartarra aske geldit zen domekan, kartzela zigorra osorik bete ondoren. 18/98 sumarioan epaitu zuten eta Auzitegi Gorenak ezarritako zortzi urte eta erdiak osorik bete ditu. Domeka goizean Burgosko kartzelatik irten zen. Eguerdian iritsi zen Elgoibarrera. Hainbat lagun eta senide gerturatu zitzaizkion agurtzeko eta ongi etorria emateko. Guztiei eskerrak eman zizkien Mendizabalek.

Sumario berean zigortutako 47 lagunetako bat da Mendizabal. 2007ko azaroaren 30ean atxilotu zuten eta Auzitegi Nazionalak ezarri zion 13 urteko espetxe zigorra arindu zion gero Auzitegi Gorenak, 2009an kaleratutako epaian. Gorenaren arabera, akusatu batzuk "zuzendari" gisa aritu ziren eta beste batzuk ETAko kide gisa. Azken multzo horretan sartu zuten Juan Mari Mendizabal.

# 'Harri beltza' mugitzen saiatuko dira hiru idi pare abenduaren 26an, Sigman



Gatikako Jon La Cruz, Barrikako *Txapas* eta Zumarragako Pablo Aranberriren idi pareek *Harri Beltza* mugitzeko ahalegina egingo dute abenduaren 26an Sigmako probalekuan, 18:30etik aurrera. 70 bat urtean ez da tamaina egokiko probaleku batean erabili 2.100 kiloko harri irregular hau. 2009ko Trinitate jaietan, Soarteren idi pareak egin zuen saiakera Kalebarren plazako probalekuan: bi plaza eta lau metro egin zituen; ekitaldiak ikusmin ikaragarria sortu zuen.

## Etxez etxeko laguntza finantzatzeko hitzarmena

Mendekotasuna duten pertsonentzako etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak hitzarmena sinatuko dute. EH Bilduk uste du aurreko legealdian, egon zela hitzarmena sinatzeko aukera baina udal gobernuak ez zuela sinatu "alderdikeriak bultzatuta eta elgoibartarron interesak albo batera utzita". Prentsa ohar batean salatu du Elgoibarrek 50.000 euro galdu dituela. "Ezer gutxi egin daiteke galdutako dirua berreskuratzeko, baina EH Bilduk Udalaren arduragabekeria salatu nahi du, bai hitzarmena sinatu ez zutenean, baita ere inongo azalpenik eman gabe sinatzen dutenean", adierazi du EH Bildu koalizioak.

## Urteko gazta txapelketan beste zortzi gaztagilerekin lehiatuko da Mausitxa

Mausitxa baserriak aurkari gogorrak izango ditu Gabon Zahar Ferian egingo den urteko gazta txapelketan. Hego Euskal Herriko beste zortzi gaztagilerekin lehiatuko da abenduaren 26an. Parte hartzaile guztiek irabazi dute gazta lehiaketa entzutetsuren bat. Epaimahaiak sari bakarra emango du (1.500 euro). Kalamua elkarteak eta Elgoibarko Udalak lankidetzan antolatzen dute lehiaketa hau, eta aurtengoa zortzigarren edizioa izango da. Iaz Joseba Intxausti ordiziarrak eskuratu zuen saria.



# ZORIONAK

ETA URTE BERRI ON

MYL

Erramone Poligonoa, 1-3-5
20850 Mendaro (Gipuzkoa) Spain
**www.myl.es**



# GOKI ERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK





Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587
*goki@gokierreformak.com*

Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA
Tel.: 943 765 342 - Faxa: 943 765 216
bergara@gokierreformak.es

I.T.E.
Eraikinen ikuskaritza teknikoak

Energia-eraginkortasunaren ziurtagiria

**Fatxadak (Isolamendu termikoa) - Teilatuak - Bainugelak**
**Sukaldeak - Igogailuak - Gremioen koordinazioa**

**www.gokierreformak.net**

**Gabon Zoriontsuak!**

**DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA**

*Euskararentzat bidea ez da*
*erraza eta leuna;*
*hala eta guztiz ere, argituko da*
*noizbait bere etorkizuna.*
*Hizkuntza dugu herriak duen*
*benetako ondasuna;*
*Urte Berriak dakarkiola*
*geureari osasuna.*

Eguberri zoriontsua
eta urte berri on!



Kalebarren plaza, 2 – 20870 ELGOIBAR
943 742 731
*udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus*



NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

**ZELETA**

BARAZKIAK

GABON ZORIONTSUAK!




EUSKAL BASERRI

*Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu*

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Ortutik mahaira!
Kalitatea bermatua!

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu




# "Lantegiek harritu gaituzte"

## EDUARDO ARRILLAGA ARGAZKILARIA



**Lantegietako irudi benetan ikusgarriak lortu dituzte Esmeralda Zapparoli eta Eduardo Arrillaga argazkilariek. Barruraino sartu eta langileak beharrean ari diren tokian bertan atera dituzte. Era guztietako lantegien argazkiak egin dituzte: handiak eta txikiak, modernoak eta tradizionalak, ilunagoak eta argiagoak. Hori bai, gehientsuenak metalaren jarduerari lotutakoak. Bilduma ikusita, munduko hamaika leku erretratatu dituztela pentsa liteke, Istanbul, Boston edo Hanburgo esaterako, baina ez da hala izan: guzti-guztiak Elgoibarko 37 tailerretan ateratakoak dira. Urtebeteko lanaren ondoren, 135 argazki bildu eta *Metalaren Arrastoak* liburua kaleratu dute. Horko argazki batzuk, 46, anpliatu eta Kultur Etxeko erakusketa gelan jarri dituzte urtarrilaren 8ra arte. Halako proiektu mardul batean murgiltzea gogorra izan dela gogoratu du Eduardo Arrillagak. "Hasieran lagatzeko tentazioa ere izan genuen", aitortu digu. "Pixkanaka lantegi bakoitzetik zerbait ateratzen genuen. Merezi du barren! Horrek animatu gintuen". Lortutako emaitzak eta jendearen harrerak pozik utzi ditu.**

OIER NARBAIZA

**◆ Liburu hasieran Sigmako 1996ko argazki batzuk ere sartu dituzue.**

Hau guztia karanbola hutsa izan da. 1996an Jesus Mari Sarasuak deitu zigun esanez Sigma desegin egingo zela eta instalazioen argazkiak ateratzeko desagertu aurretik. Ahal izan genuen guztia erretratatu genuen eta bideo bat egin genuen, erakusketan jarri duguna. Gero hori guztia artxibatu egin zen. Mojekin gauza bera gertatu zitzaigun bi urte lehenago, Koldo Lizarralderekin atera genituen. Filipatu egin genuen, josteko makinen pedalak egiten zituztelako. Erreminta-makinaren urteurrenean, esan genuen: "Orain 20 urte ateratako argazkiak beharbada orain atera ditzakegu". Aitor Zabalari erakutsi genizkion eta berak egungo zerbait egiteko esan zigun. Ezetz esan nion, eta gero Esmerekin, emaztearekin, hitz egin nuen: "Zerbait egiten badugu?", eta hariak mugitzen hasi ginen.

**◆ Zein izan da zailtasunik handiena?**

Lantegietan sartzea. Ez guztietan, baina batez ere handietan. Beste herrialde batean egotea bezalakoa da. Lantegietan argazkiak ateratzea debekatuta

*Eskuman, Eduardo bera lantegi batean. Ezkerrean, argazkien kalitatea gainbegiratzen eta liburuaren azala. Behean, Elgoibarko lantegi baten irudia. (Arg.: Eduardo Arrillaga / Esmeralda Zapparoli)*



dagoela esaten duten kartelak daude. Marketingekoa beldurrez egoten zen guk zer aterako. Gero, gerenteari deitu eta kasualitatez gerenteak ezagutzen ninduen. Sartzeko bi-lau hilabeteko itxaronaldia egin behar izan dugu. Tailerretan sartutakoan, hango konfidentzialtasuna errespetatu behar genuen. Lantegietako argia lanerako egokia da, baina ez argazkiak ateratzeko; argi naturala guretzako ezinbestekoa da. Tailer bakoitzari noiz zetorkion argirik onena aztertu behar izan genuen. Irudiaren kalitateari erreparatu nahi izan diogu uneoro. Oso lan delikatua da. Argazkiak ondo egin ahal izateko, azterketa sakonak egin behar izan ditugu, lan handia egin dugu eta asko itxaron behar izan dugu.



**◆ Hasiera korapilatsua beraz...**

Baina lantegiek harritu egiten gintuzten, argiagatik eta egiten zutenagatik. Puntu batera iritsita, aurrera egitea pentsatu genuen. Kanpoko argazkilari bati ez zioten sartzen lagako, guri laga diguten moduan, ezagutzen gaituztelako.

**◆ Zein izan da lan honen irakasgai nagusia?**

Itxaroten ikasi dugu. Argazkilari batek itxaron egin behar du. Kalean egoerak gertatzeko zain egon gaitezke, baina hemen itxaron egin behar dugu, ez baitugu produkzioa eten. Lantegietako egoeretara egokitu behar izan dugu. Pazientzia izaten ikasi dugu. Horrez gain, lantegien arteko konexioaz jabetu gara, elkarrentzat lan egiten baitute. Sare moduko bat osatzen dute elkarrekin, eta denen artean jasotzen dute hau guztia.

**◆ Langileak ez dira modeloak. Nola lortu duzue eurekin lan egitea?**

Proiektua banan-banan azaldu diegu. Batzuek ez zuten oztoporik jartzen eta haiekin lan egin dugu. Hori bai, norbaitek “niri ez atera gero!” esanez gero, guk borondate hori errespetatu egin dugu.

**◆ Erakusketa zabalik dagoen bitartean, azalpenak emango dituzue astean behin, ezta?**

Eguaztenetan erakusketa gidatuak egin nahi ditugu. Lan hau nola egin dugun kontatu nahi dugu. Zoramen honen inguruko ikuspegia emango dugu, zoramena izan da eta! Inoiz ez dugu honela lan egin! Astebete norabait joan eta argazkiak atera bai, baina urtebete gelditu gabe ibil gara! Deiak, emailak, whatsappak denetik jasotzen genuen uneoro lantegietatik. Eta jendeak gu hartzen gintuen kontuan! Ikaragarria izan da!

**◆ Zoramena izango zen, baina pozik geratu zarete.**

Erabat! Hau jendeari eskertzeko modukoa da. Lantegiek eta langileek ez balute lagundu ezin izango genuen lan hau egin.



# Daniel Legorburu Gabilondo

2015eko abenduaren 11n hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Etxekoak





III. URTEURRENA

# Kerman Moreno Iriondo

***Mendietarantz pausoa luzea
bizitzak krudel haizea
nola gainditu, nola arindu
zu hemen ez izatea.
Zure goxoa, zure barrea
gertu beti umorea
ez hiltzen zenbat saiatzen garen
bizitzen gutxi, ordea,
gugan landatu dituzunekin
segiko dugu bidea.***

Etxekoak

2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela. Haren oroimenez III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduak 19, arratsaldeko19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.





III. URTEURRENA

# Kerman Moreno Iriondo

2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela.

***Heriotzaren ondoren
gure laguna ez ikusteak
edo berarekin komunikatu ezin izanak
ez du esan nahi betiko galdu dugunik.***

Zure lagunak



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: ***barren@elgoibarkoizarra.eus* - 943 744 112**




**Merkatu plaza azpiko lokala garbi**: "Askotan kexatu izan gara merkatu plaza azpian zaborretarako dagoen lokala zikina egoten zelako, besteak beste, merkatu plazako saltzaileok kaxak botatzeaz gain, kanpotik, beste batzuek, askotariko hondakinak botatzen zituztelako eta umeak ere lokala narrasten ibiltzen zirelako. Orain, ordea, eskertu behar dugu lokaleko atea ixtea eta dagokigunok bakarrik zaborra bertara botatzeko giltza edukitzea. Udalari eskerrak eman nahi dizkiogu ingurua txukun dagoelako. Izan ere, hondakinak botatzea inorentzat gustuko lana ez izan arren, hori egin zutenetik guretzat bertara joatea atseginagoa da".

---



**Urazandin Eguberrietako argirik ez**: "Badira bi urte ez dutela Eguberrietako argirik jartzen Urazandi auzoan. Nire semeek ere igarri dute argien falta. Herria oso dotere dago jarri dituzten argiekin, baina Urazandi moduko auzo handi batek apaingarriren bat edo beste merezi duela iruditzen zait. Ez dut eskatzen auzo guztia argiztatzea, baina lehen, ume txikien eskolako teilatuan jartzen zituzten argiak orain ere ipiniko balituzte konformatuko nintzateke".



**Autobusak eta autokarabanak**: "Sarritan ikusten ditugu horrelako irudiak gure kalean, San Roke eta Basarte bitartean. Ibilgailu luzeak aparkatzen dituzte espaloi guztia okupatuz eta oinezkoak lasai ibiltzeko edo umeen kotxeekin eroso pasatzeko bidea oztopatzen dute. Ibilgailu hauek ez dira hor aparkatzeko!".



**Publizitate panel zaharrak kendu eta bertan laga**: "Elgoibarko bide-gorriaren hasieran, publizitate panel handi bat dago. Bada denboratxo bat panel zaharra kendu eta berria ipini zutela, baina zaharra bertan laga zuten eta oraindik han dago. Hori sekulako zikinkeria da eta eskatuko nuke, mesedez, lan horretan ari denak zaharra kentzean dagokion lekura botatzea".

# 100 kilo arropa eta eskola materialeko 30 kilo batu ditu Pablo Garridok Palestinara eramateko



Pablo Garrido, orain arte jaso duen materiala erakusten.

Ez dago zertan musulmana izan Palestinari babesa emateko. Gizatasun kontua baino ez da", esaldi horrek laburbiltzen du Pablo Garridoren asmoa. Gabonetako oporraldian, Palestinara egingo duen bidaia aprobetxatu nahi du Elgoibarko herriaren elkartasuna hara eramateko.

"Aspalditik nuen Palestina ezagutzeko gogoa eta bidaia prestatzea erabaki nuen. Bide batez, hango jendearentzat arropak eta eskola materiala batzea pentsatu nuen". Sentitu, pentsatu eta ekin: azken zapatuetan Maalan ikusi dugu Pablok martxan jarritako argazki erakusketa eta bideo proiekzioa. Herritarrek palestinarrentzako materialak eman dizkiote.

Kanpaina Eibarrera ere zabaldu du, eta espero baino oihartzun handiagoa lortu du. "Zoriontsu nago, erabat zoriontsu". Guztira 100 kilo arropa batu ditu, eta 30 kilo jaso ditu eskolako materialetan. Horrez gain, dirua ere eman diote herritar batzuek hango ospitaleek dituzten beharrak arintzeko asmoz.

## Harreman estua

Gazako neskatxo bat *apadrinatu* edo babesean hartu zuen Pablok orain urte batzuk. Umea gaixorik dago, leuzemia dauka. Berarekin eta bere familiarekin posta bidezko harremana du, eta bidaia hau neskatxoa bisitatzeko aprobetxatu nahiko luke.

Horrez gain, gertutik jarraitzen du Pablok Palestinako herriak bizi duen gatazka. Sare sozialen bidez informazio asko jasotzen du, eta harreman estua du elkartasuna eskaintzen ari diren hainbat pertsona eta talderekin. Kezkatuta dago hango herritarren bizi baldintza gogorrekin.

Elgoibarren eta Eibarren jasotako elkartasunarekin pozik dago. Orain materiala garbitu, sailkatu eta antolatzen ari da. Era berean bidaian egin beharrekoa prestatzen ari da aldez aurretik.

## Eskerrak

Bidaiari ekin aurretik esker hitzak ditu: "Eskerrik asko Ludotekari, jolasen inguruko informazioa emateagatik, Pitxintxuri eskola materiala emateagatik, Sutegixa gaztetxeari babes guztiagatik, Okil Beltzak taldeari materiala fakturatzeko laguntza ekonomikoa helarazteagatik, arropa eta eskola materiala eman didaten guztiei, eta palestinarren premientzat dirua bideratu duten guztiei. Oso eskertuta nago", adierazi du Pablok.


ARAMBURU BITXIDENDA
San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35
Erosi zure erregalua Aramburu bitxidendan eta
250€-ko bi baleen zozketan sartuko zara.


Maria Urizar
Ileapaindegia
Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
maria.urizar@hotmail.com


Luvik
OINETAKOAK
San Bartolome, 28
Tel.: 943 744 345
Gabon zoriontsuak!


SAHATZU HARATEGIA
Santa Ana, 5 - 943 742 048
JON ULAZIA "SAHATZU"
Gabon zoriontsuak!


Imprenta Arrillaga
Inprimaketa: Offset
Digitalean
Fotokopiak
GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI
Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87


AZALEA Edergintza
Mª Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310
Gorputz eta aurpegi estetika
Abian dagoen negozioa alokatzen da, erretiroa dela eta.


elgoibarko herri eskola
JAI ZORIONTSUAK eTA URTe BeRRi ON

# ESKERRIK ASKO, DENOI!

## Portatu zarete, oraingoan ere!

Zuen borondateari esker, 1.500 opari baino gehiago izango ditugu Elgoibarko Izarraren aldeko TONBOLAN. Zuen borondateari esker, abenduaren 24ko eguerdian giro berezia izango dugu Kalegoen plazan. **Euskararen plazan bilduko gara denok!**

*Alcorta F.G / Aldaz hortz-klinika / Alire estetika / Altzola Berazeta baserria / Alkorta bakailaoak / Amagoia gozoki-denda / Amaia fruta-denda / Ametsa kafetegia / Andres Alberdi / Angel Ugarteburu / Agurtzane ile-apaindegia / Antxustegi zeramikak / Apraiz parafarmazia / Arantxa eta Marian fruta-denda / Arauri lurrindegia / Arkupe okindegia / Armueta harategia / Astigarra kirolak / Azkue argazki-denda / Azpeleta argi-denda / Agirre jostundegia / Asier Illarramendi / Azpiz`s bags / Beitia Arriola fisioterapia / Beitia Arriola hortz-klinika / Belaustegi jatetxea / Beristain logistika banaketa / Bire etxetresna elektrikoak / BM supermerkatuak / Caramel gozoki-denda / Colchoneria Lagunak / Carlos Vela / CD Elgoibar / Charola industria hornidura / Danele Sarriugarte / Dantzan.eus / Doña Mercedes okindegia / Domiko harategia / Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseilua / Estanco nº 2 / Emilia Nogales / Ecenarro mertzeria / Elena ile-apaindegia / Egur arte-tailerra / Ekain pintura eta dekorazioa / Evoka shoes zapata-denda / Eskuz eskulan taldea / Etxekit sukaldeak / Eizagirre okindegia / Ene bada jantzi-denda / Errigora-Elgoibar / Euskadiko Kutxa / El Gautxo pizzeria / Eroski / Elgoibarko Gazte Asanblada / Fotero okindegia / Fadek ile-apaindegia / Fisio&más fisioterapia / Gabi jatetxea / Garate jantzi-denda / Gobike bizikleta-denda / Gorostiza liburu-denda / Gure Esku Dago / Geronimo Ruli / Hair´s ile-apaindegia / Haritz Euskal Dantzari Taldea / Hazten arropa-denda / Hondarribi arraun elkartea / Ibai-Ondo erretegia / Ibarrenea okindegia / Ilunpe taberna / Iban Urizar / Ikus optika / Iñigo Lariz / Irati Agirreazaldegi / Iraola-Zialtzeta harategia / Irudi argazki-denda / Iriondo altzariak / Iriondo taberna / Iriondo kirolak / Isleder / Iturri taberna / Jai-alai taberna / Jasone Osoro / Jesus Mari Makazaga / Jon Gurrutxaga / Jone Aliri / Jose Antonio ile-apaindegia / Jon Zabala / Kala lora-denda / Kalamua Guraso Elkartea / Karkizano mertzeria / King-kong taberna / Kontxi arropa-denda / Kutxabank / Lagun Txirrindulari Taldea / Lanbroa taberna / Larre okindegia / Lerun jatetxea / Leigar etxetresna elektrikoak / Luvik oinetakoak / Lurdes ile-apaindegia / Mª Angeles fruta-denda / Mahats ardotegia / Maite Maiora / Maite Rementeria / Mapfre aseguroak / Magi bitxiak / Mary harategia / Markel Bergara / Mekanosa / Mintxeta Atletismo Taldea / Morkaiko Mendizale Elkartea / Muruamendiaraz gozotegia / Moma jantzi-denda / MG burdindegia / MGS aseguruak / Napoka Iria musika-taldea / Oin-Berri podologia zentroa / Orbea taberna / Olalsa industria hornidura / Otzak kafetegia / Patxi harategia / Pausoak zapata-denda / Pepi eta Mila fruta-denda / Pitxintxu opari-denda / Pello Arrieta, Jabier Elorza eta Pedro Andonegi / Rural Kutxa / Sahatzu harategia / Sanlo EKT / Sara jantzi-denda / Sinuöse Kultur Elkartea / Skandalo mertzeria / Soarte argazki-denda / Sugar gozoki-denda / Suministros Evia / Softlan informatika / Tantaka taberna / Txarriduna jatetxea / Txillarre eko-denda / Txomin Mujika / Usua kafetegia / Uzuri optika / Uxue Alberdi / Viento Sur gastroteka / Xarlem creations / Yudego farmazia / Zaloa Arnaiz / Ziarda harategia / Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartea.*

**Elgoibarko Izarraren aldeko**

# TONBOLA

**Abenduak 24, 11:00etatik 14:00etara,**
**Kalegoen plazan**

**1.500 erregalu** baino gehiago,
eta, amaieran,
**telebista baten zozketa!**



# 2015 urtekaria

BARREN



**Agur, Miski!** Miski Gobernuz Kanpoko Erakundeak bere ibilbidea amaitutzat jo zuen. Hamabost urtez Gemma Agirregomezkorta elgoibartarra izan zen elkartearen aurpegia eta beste bi lagunekin eutsi zion elkarteari bukaerara arte. Peruko umeei laguntzeko sortu zen elkartea. Agirregomezkortak zuzenean Cuzcora bidaltzen zuen herrian bildutakoa; eskura ematen zuen. 500 bat haur eta gaztek jaso dute azken urteotan Miskiren laguntza. Miskik urte hauetan emandako elkartasuna eskertu zion Elgoibarko herriari.



**Eguraldi petrala.** Deba ibaiak maila gorria gainditu zuen urtarrilaren 30ean eta kalteak eragin zituen, bereziki Altzolan eta Mendaron. Goizean goiz, bandoa zabaldu zuten Elgoibarko eta Mendaroko udalek, etor zitekeenaz ohartarazteko. Deba ibaiak gainezka egin zuen Andikano inguruan eta Altzolan. Mendaron, berriz, hain hazita zihoanez Deba ibaia, ezin izan zuen Kilimon errekaren emaria hartu. Ondorioz, ufalak izan ziren Garagartza auzoan.



**'Elgoibar zaindu', intzidentzien zerbitzu berria.** *Elgoibar zaindu* zerbitzu berria jarri zuen martxan Elgoibarko Udalak. Sakelako telefonorako aplikazioa da, eta haren bidez kaleko intzidentzien berri eman dezakete herritarrek. Horrez gain, ingurumen arloko kontsultak ere egin daitezke app honen bidez.



**Sigma eta Olaso lotzeko zubi berria.** Urtarrilaren 9an zabaldu zuten Olaso industriagunea eta Sigma auzoa lotzen dituen oinezkoentzako pasabide berria. Irisgarritasuna hobetu ahal izateko, igogailua ere jarri zioten Olasoko aldean. 178.810 euroko kostua izan zuen lan horrek.


ESARRI AUTOAK
MARKA GUZTIAK
Olaso, 17
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 741 480
Fax: 943 031 576
Jon: 679 241 623
Anton: 680 358 573
e.mail: esarriauto@gmail.com
ZERBITZUA
HYUNDAI
mazda








**IMHko bi ikasle auto istripuan hilda.** Alberto Soto eta Eduardo Piñol IMH institutuko ikasleak hil ziren Eibarko saihesbidean, 634 errepidean, gertatutako auto istripuan, eskolara bidean. Hirugarren bat larri zauritu zen. Istripuak lur jota utzi zuen IMH guztia. Egun horretako klaseak eta programatutako zenbait jarduera bertan behera gelditu ziren.



**Arkaitz Egaña, Espainiako Ehiza Xehe Txapelketan bigarrena.** Arkaitz Egaña eta *Sol* txakurra bigarren sailkatu ziren 2014ko Espainiako Ehiza Xehe txapelketan (abendutik urtarrilera atzeratu zuten). Ehiztariek ez zuten aukerarik izan aldez aurretik ehiza Toledoko Fuensalida herriko ehiza barrutia bisitatu eta ikuskatzeko, eta erreferentziarik gabe lehiatu behar izan ziren. Bestalde, abenduaren 12an irabazi berri du Sorian jokatu den 2015eko Espainiako Ehiza Xehe Txapelketa.



**Mugertza krosa, ikuskizun mundiala Mintxetan.** IAFF kategoria eskuratuta, munduko hamabi kros onenen artean sartu zen. Era berean, beste marka batzuk ere ondu zituen 2015eko krosak, besteak beste, partehartzaile kopuruarena eta ikusleena. 6.000 lagun baino gehiago batu ziren urtarrilaren 25ean Mintxetan, 700 atletatik gora lasterka ikusteko. Teklemariam Medhinek (Eritrea, 1989) irabazi zuen gizonezkoen lasterketa nagusia eta Mimi Belete (Bahrain, 1988) gailendu zen emakumezkoenean.


**Gizonezkoen ile-apaindegia**
JOSE ANTONIO

Zerbitzu bakoitzean, toaila eta erabili eta botatzeko bizar-xaflak ere sartzen dira, higienearen gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.

Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukunketak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L´OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako



**Kontsultatu hemen ordutegiak: www.peluqueriajoseantonio.com**

**Gizonezko baten hilotza Deba ibaian.** Gizonezko baten gorpua aurkitu zuten Deba ibaian, Mendaron, Erramone industriagunek sarrera parean. Inguru horretan txabola duen gizon batek eman zuen abisua. Ibai ertzeko sastraketan hilotz bat zegoela esanez deitu zuen SOS deiak zerbitzura. Hilotzaren inguruan apenas eman zuten daturik ertzainek.





**Luperia Idotorben.** Euri jasa handiak izan ziren otsailean eta arrastoa laga zuten. Idotorbeko bideko luperiak kalte handiak eragin zizkien bizilagunei, errepidea itxita egon behar izan baitzen garbitu artean.



**Elurra mara-mara!** Aurreko egunetako denboralearen ostean, elurra heldu zen kaleetara eta irudi politak utzi zizkigun. Zorionez ez zen aparteko arazorik sortu herrigunean.

PNEUMAX, S.A.

AUTOMATIZAZIO NEUMATIKORAKO OSAGAIAK

Olaso, 15, Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR
Teléfono: 943 74 41 44 - 943 74 41 74
Telefax: 943 74 40 78
E-Mail: pneumax@pneumax.es
Web: www.pneumax.es

MIEMBRO DE aiftop Oleohidráulica y neumática

Gabon zoriontsuak herritar guztioi!



**Suak hartu zuen Ertzil baserria.** Hiru kideko familia bizi zen Urruzuno bailarako Ertzil baserrian. Zorionez, ez zen zaurituriк izan. Goizean, amak, alaba eskolara eramatetik bueltatzean, baserritik kea irteten zela konturatu eta etxean sartu zen senarra esnatu eta abisatzera. Soinean jantzita zutenarekin irten ziren, beste ezertarako astirik gabe.





**Mari Karmen Agirrek, 100 urte.** Otsailaren 13an 100 urte bete zituen Mari Karmen Agirre moja klaratarrak, senide eta lagunez inguratuta. Xabier Lizardi euskal poeta zenaren arreba otoitzari emanda, kantuan eta hizki zopak eginez aurkitu genuen Elgoibarko komentuan. "Hemen ereginen pare bizi naiz", adierazi zuen bere urtebetetze egunean.

**Maalako parkea, estalita.** Maalako parkearen estalpea otsailean inauguratu zen. Berez, gabonetarako aurreikusita zegoen, baina eguraldiaren eraginez lanak atzeratu egin ziren. Iosu Gabilondo arkitekto elgoibartarrak diseinatutako aurre-proiektuan oinarrituta estali zuten parkea.










**Jende kopuru izugarria Korrikan.** Martxoaren 23an pasa zen Korrika Elgoibartik eta Mendarotik. Euripean etorri bazen ere, ongi-etorri beroa egin zioten herritarrek. Euskaraz bizi den eta bizi nahi duen herria agertu zuen Korrikak. Izugarria izan zen mugitu zuen jendetza.



**Leire Melgosa eta Alberto Hijano, ikasle finak.** Eusko Jaurlaritzak Batxillergoko Sari Bereziak banatu zituen martxoan. Guztira, aurreko ikasturteko hamabost ikasle saritu zituzten, tartean bi elgoibartar: Leire Melgosa (IES-Elgoibar-Aurreiturre BHI institutua) eta Alberto Hijano (IES Mutrikuko Institutua). 2013/14 ikasturtea 15.000 ikaslek amaitu zuten eta 700 aurkeztu ziren froga honetara.










**Urbizi urpekaritza taldeak, mende laurden.** Urbizi urpekaritza taldeak 25 urte bete zituen 2015ean. Horrexegatik, Elgoibarko Udalak oraoigarria eman zion talde honi. 1990ean urpekaritza taldea sortzea erabaki zuen lagun talde batek. Ordura arte, bakoitza bere aldetik ibiltzen zen. Taldea eratzeak zaletuei erraztasunak ekarri zizkien. Izan ere, elkarrekin hitz egiteko, materiala alokatzeko eta ikasteko aukera berriak izango zituzten aurrerantzean.




**Felix Morquecho, Mugertza kroseko argazki lehiaketako txapelduna**. Felix Morquecho argazkilari eibartarrak irabazi zuen Mintxeta atletismo taldeak antolatutako argazki lehiaketa, Polat keboi Arikan 2015eko kroseko bigarren sailkatuari ateratako argazki batekin. Vicente Guinea argazkilari elgoibartarrak, berriz, bigarren saria lortu zuen eta herritarren bigarren saria Miguel Castrok eskuratu zuen. Guztira 40 argazki aurkeztu ziren.

EA

Hamabosta bukatzen,
hamaseia hara,
denon elkartasunaz
gailenduko gara;
Lipdubean bezala,
poza ta zirrara,
Zorionak Elgoibar,
ta biba euskara.

Ondo pasa Eguberrietan!

**Suteak mendian.** Apiril erdialdean bi sute gertatu ziren Elgoibarko mendi inguruetan. Lehenengoa Uparitzaga baserriaren eta Meka Lanbide Heziketako ikastetxearen arteko pinudian gertatu zen. Haize bolada batek Albitzuriko Meka ikastetxe ondoko landaretzara zabaldu zuen sua, eta badaezpada ikasleak ikastetxetik atera zituzten. Bi egun geroago, Azkarate bailarako Otsourteaga inguruko basoan izan zen sutea. Baserritarrek eman zieten abisua suhiltzaileei.



**Ikusmin handia Kilimon Trail mendi lasterketan.** Izen handiko korrikalariak zeuden izena emanda apirileko Kilimon Trail mendi lasterketan. Horregatik bazegoen ikusmina, nork zer egingo zuen. Azkenean, Aitor Osa itziartarra eta Maite Maiora mendaroarra nagusitu ziren. 2015eko lasterketak berrikuntza bat ere izan zuen: kronoigoera. Gaintxipixatik Lizarpera nork azkarrago igo neurtu zuten –400 metroko igoera, 100 metroko desnibelarekin–, eta bi onenak saritu: Julen Martinez de Estibariz gasteiztarra eta Maite Maiora.



**Pilota eskola sortu zuten Mendaron.** Mendaroko hainbat ume Elgoibarren entrenatzen ziren Lagunak taldearekin. Oso gustura jardun arren, Mendaroko frontoia kontuan hartuta, gurasoek pentsatu zuten Mendaron eskola propioa sortzea, umeekin atzera eta aurrera ibilik beharrean. 9tik 11 urtera bitarteko bederatzi mutilekin hasi zuen ibilbidea, baina eskolako ateak zabalik daude herriko beste neska-mutil guztientzat.





**Felisa Bergaretxek, 100 urte.** Felisa Bergaetxe *Felisin*-ek 100 urte egin zituen apirilaren 19an, eta familiakoez inguratuta ospatu zuen jaio zeneko mendeurrena. Felisin Ermuan jaio zen 1915ean. Ermuan 18 urtera arte bizi izan zen. Montalboko kondearen neba-arreben etxera sukaldari izan zen. Geroago, Elgoibarrera etorri eta taberna ireki zuen. Tabernan ez ezik Sigman ere aritu zen lanean. Tabernako lanetik koninatuaren dendara pasatu zen gero. 34 urterekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituen.




*Eguberri on!*

*Ireki ateak euskarari*

*Egunon agurtzen hasi*
*denok ulertzen baitugu,*
*euskaraz hitz egiteko*
*asmoa dela helburu,*
*euskaldun mundu honetan*
*euskara da hiriburu,*
*gure jolasen partaide*
*ta ametsen iturburu,*
*nahiz baratzetik irtenda*
*horrenbeste artaburu*
*gure ahalegina jarriz*
*lortuko degu seguru,*
*ta gure ateak giltza*
*euskalduna izango du!*

*Giltza eskuan edukiz,*
*errezagoa da dena!*
*teoria badakigu*
*praktikan daukagu lana*
*euskarak izan behar du*
*gure eguneroko jana,*
*berdin kirol berdin dantza...*
*edo Whats App-eko plana!*
*berdin katoliko izan,*
*protestante, musulmana...*
*eginez eragitea*
*da garrantzia daukana*
*inungo lotsarik gabe*
*erakutsiz dakidana!*

Maite Bikandi (Batxiler 1D)

Elgoibar-Arreiturre Institutua



**Aurresku eta soinu zahar txapelketan, dantzari bikainak.** Aurresku eta soinu zahar txapelketa jokatu zuten apirilean Herriko Antzokian eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleak fin aritu ziren. Eneko Gonzalezek bigarren egin zuen 11 eta 15 urte artekoetan, eta Gaizka Uranga bosgarren sailkatu zen. Nesketan emaitza hauek lortu zituzten: Amaia Astigarraga (12), Oihane Agirrebeña (16), Irati Marcos (21) eta Lorena Etxaniz (22).



**Uxue Alberdik 'Bi Kobazulo' ipuina idatzi zuen.** Uxue Alberdi kazetari eta idazle elgoibartarrak Bi kobazulo ipuina argitaratu zuen. Historiaurreko biki batzuen istorioa kontatzen du Alberdik (Elgoibar, 1984). Abiapuntuan amona-biloba batzuk daude. Umeak esaten dio amonari bi kobazuloen ipuina kontatzeko, eta magalean dagoenez, hori eskatzen ari den unean amonaren sudurzuloak ditu begien parean umeak. Haiek bi kobazulo balira bezala ikusten ditu umeak.



**Danele Sarriugartek Zilarrezko Euskadi Saria.** Zilarrezko Euskadi Saria irabazi zuen Danele Sarriugartek (Elgoibar, 1989) *Erraiak* liburuari esker, eta Liburuaren Nazioarteko egunean eman zioten saria. Elgoibartarrak argitaratu duen estreinako nobela da *Erraiak*. Gipuzkoako Liburu Saltzaileen Elkarteak ematen du Zilarrezko Euskadi Saria.



**Desioak josten.** Gure esku dago mugimenduak erabakitzeko eskubidearen aldeko Joste Eguna ospatu zuen apirilaren 24an hainbat herritan, tartean Elgoibarren eta Mendaron. Elkarteen, eragileen eta norbanakoen laguntzaz egun osoko egitarauak antolatu zituzten bi herrietan. Eguraldia lagun, jende asko gerturatu zen ospakizunera. Herritarrek haien desioak eta ilusioak jarri zituzten oihal batzuetan. Oihal batzuk beste batzuekin josi zituzten. Gero, ekainaren 21ean Donostiako ekitaldira eraman zituzten beste herri batzuetakoekin batera.

IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.

Makina Bereziak

Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L
Tel.: 943 744 466 · Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net



**San Lazaro egoitza Aldundiaren esku.** Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu zuten. Ondorioz, aurrerantzean San Lazaro egoitza Udalaren ardurapetik Foru Aldundiaren ardurapera pasatuko zen. Hitzarmenari esker, urte bukaera baino lehen ekingo zion Aldundiak egoitza kudeatzeari. San Lazaro egoitzak 35 langile inguru ditu eta 48 egoiliar artatzen ditu.






**Milioi bat euroko saria.** Elgoibarko BM supermerkatuaren barruan dagoen Rosa liburudendan egindako apustu batek milioi bat euroko saria irabazi zuen, Loteria Primitivan.



**Marokoko basamortuan mendi bizikletaz.** Titan Deserten parte hartu zuen Igor Iraolagoitia mendaroarrak, sei egunez Marokoko basarmotuan mendi bizikletaz egiten den muturreko lasterketan. Proiektu solidario baten barruan joan zen, 'Basamortura eskuzabal' proiektuaren barruan. Sei egunetan 600 kilometro egiteaz gainera, inguru hartara laguntza bidaltzeko baliatu zuten bidaia. 6.000 euro eraman zituzten sendagai eta arropetan.

HAIR'S
ILEAPAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 53 12 79

ASTEARTEETAN JUBILATUEN EGUNA:
- Orraztu 8 €
- Garbitu, moztu eta orraztu 16 €



autocares Revert



Gabon zoriontsuak!
Kalitatea eta zerbitzu ona, eskura
Avd. P. Muguruza, 29 - 5º A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa
Tel.: 943 741 853 - Fax: 943 531 386
autocaresrevert@gmail.com
www.autocaresrevert.com



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

**Udal eta Foru hauteskundeak egin ziren maiatzaren 24an.** Elgoibarren, EAJk gehiengo osoz irabazi zuen: botoen %50,3 eskuratu zituen, 2.797 guztira. 2011ko Udal eta Foru Hauteskundeetan baino 525 boto gehiago eskuratu zituzten jeltzaleek udalerako, eta bederatzi zinegotzi eskuratu zituzten, duela lau urtekoetan baino bi gehiago. EH Bilduk 1.709 boto lortu zituen, 2011n baino 328 gutxiago, eta zinegotzi bat galdu zuen (sei ditu). PSEk botoei eta bi zinegotziei eustea lortu zuen. PP, berriz, udaletik kanpo geldditu zen.

Mendaron, berriz, alkatetza berretsi zuen EHBilduk, gehiengo osoz. Boto kopuruan behera egin arren, koalizioa izan zen bozkatuena, eta bost zinegotziei eutsi zien. EAJ izan zen bigarren alderdi bozkatuena, 334 botorekin eta lau zinegotzi lortu zituzten.

Ekainaren 13an egin zituzten udal Gobernuak osatzeko bilkura bereziak. Elgoibarren, Ane Beitia aukeratu zuten alkate, eta Mendaron, aldiz, Sonia Garcia.







**'Itsasoari Begira' dokumentalaren estreinaldia.** Maiatzaren 7an estreinatu zuten Elgoibarko Herriko Antzokian. Gaixotasun neurologikoa dutenen eguneroko bizimodua azaleratu nahi du dokumentalak, eta lehenengo pertsonan landu du gaia. Itxaso da protagonista, gaixotasun neurologikoa duen neska. Maier Gurrutxaga elgoibartarraren alaba da Itxaso. Lau hilabete zituela atzeman zioten medikuek gaitz neurologikoa, eta horrek eraginda egunerokoan dituzten zailtasunak jaso dituzte dokumentalean.

Softlan S.L.

Albitxuri industriagunea, 3i
20870 Elgoibar - Gipuzkoa
943 748 105

www.softlan.biz - www.softlan.eus
info@softlan.biz

*Jai zoriontsuak*
*eta 2016 urte emankorra!*

Enpresetarako Software-an espezializatuak

Softlan

ERPa, Kudeaketa, Fabrikazioa, CRMa, Fakturatzea, Kontabilitatea, Lanparteak jasotzeko Programa, Neurrira egindako Programak, Hardware, Segurtasun informatikoa.

www.softlan.biz - www.softlan.eus

**Euskal Eskola Publikoaren jaia egin zuten ekainaren 6an Elgoibarren.** Euskal Herri osotik etorritako jendea bildu zuen jaiak. Era askotako ekitaldiak izan ziren han eta hemen, denak ere, Elgoibarko eskola publikoaren baloreei loturikoak. Kalamua Guraso elkartea gustura geratu zen egunak eman zuenarekin, eta halaxe adierazi zuen: "Emozioz betetakoa izan zen, ederra. Giro jatorrean bizitako eguna, familian gozatzekoa; guztiok bat egin genuen hamaika ekintzatan".





**Protokoloa.** Genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei arreta hobea emateko protokoloa sinatu zuten herriko hainbat eragilek: Elgoibarko Udalak, Ertzaintzak, Osakidetzak, Lanbidek, Elgoibarko Herri Eskolak, Elgoibar ikastolak eta Elgoibar Arreiturre BHi institutuak. Protokolo honen helburua da arreta azkarra, koordinatua eta eraginkorra eskaintzea, eta herritarren artean, emakumeen aurkako indarkeria matxista onartuko ez duen kontzientzia landu nahi dute.



**'Bohemioen kluba' antzezlanaren estreinaldia.** Taupadak bere azken antzezlana estreinatu zuen ekainaren 18an Elgoibarko Herriko Antzokian. Ikuskizuna Pariseko Montmartre auzoan kokatzen da, Bigarren Mundu Gerraren ostean. Melodrama eta umore beltza lantzen ditu obrak, absenta ukitu batzuekin. Edurne Lasak zuzendu zuen obra, eta Joxe Mari Larrañaga arduratu zen argiztapenaren eta musikaren alor teknikoaz. Eta protagonistak, berriz, Elgoibarko aktoreak izan ziren.





**Pedro Perez presidente.** Gipuzkoako Gurutze Gorriko presidente izendatu zuten Pedro Perez mendaroarra. 1982an sartu zen Gurutze Gorrian, eta azken bederatzi urteotan Eibar-Ermua sektoreko presidentea izan da. Gipuzkoako Gurutze Gorriak 600 bazkide eta 3.000 boluntario inguru ditu.

**2015eko IMH sariak.** Ikasle ohi aipagarrienaren saria Egoitz Gurrutxaga elgoibartarrak jaso zuen eta ikasle aipagarrienaren saria Endika Vazquez eibartarrak. Eredu Dualeko saria, berriz, Unai Alonso elgoibartarrak jaso zuen eta ikasle aipagarrienaren atalean, Adolfo Mujika nabarmendu zuten. Bi aipamen berezi ere banatu zituzten, baina. Iker Iraeta eta Andoni Luque eibartarrek jaso zituzten, Ikan enpresaren sortzaileak.





**Ekigain jaia, estreinakoz.** Suaren bueltan eta jai-giroan ospatu zuten udaren etorrera Elgoibarren eta Mendaron, San Joan bezperan. Elgoibarko Izarrak Ekigain jaia egin zuen estreinakoz Sallobenten eta 200 bat lagun batu ziren suaren bueltan. Altzolan, berriz, azken bi urteetan zailtasunak izan zituzten jaiak antolatzeko, baina aurten ahalegin berezia egin zuten altzolarrek sanjoanak berreskuratzeko.



**IMH kiroldegiaren inaugurazioa.** Elgoibarko Udalak Lau Nazioen torneoa baliatu zuen IMH kiroldegi berria inauguratzeko. Euskadiko selekzioak irabazi zuen torneoa. Kirol ekipamendu berri honek 1,1 milioi euroko kostua izan du. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak berrehuna mila euro jarri dituzte, eta gainerakoa Elgoibarko Udalak jarri du. Eskubaloi taldeek eta areto futbolekoek erabiliko dute batez ere.

Gabon hauetan produktu naturalak, edertasun bonoak, norberarengan pentsaturiko pack ezberdinak... oparitu itzazu

Cristina Garcia
Estetika eta Terapia Naturalak
Errosario kalea 19 - 943 74 29 50 - cgestetika@gmail.com

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

50 urteurrena
DARIO

50 urte zuekin bidaiatzen.
Jai Zoriontsuak!!

Pol. Ind. Igartualdea, 27
20850 Mendaro - Tel. 943 741 677
www.dariobus.com - clientes@dariobus.com



**Alfredo Etxeberria Bidegiko zuzendari.** Bidegi Gipuzkoako autobideak kudeatzeko sozietate publikoko zuzendari izendatu zuten Alfredo Etxeberria, Elgoibarko alkate ohia. Elgoibarko Udalean zortzi urte egin ostean, Katty Nevadoren lekukoa hartu zuen Bidegin.



**Jaiki gazte taldea.** Elgoibarko gazte talde batek Jaiki taldea sortu zuen uztailean, inguratzen dituztenarekiko desadostasuna adierazi eta gizarteko arazoei gazte ikuspegitik erantzunez eraldaketaren ildoan martxan jartzeko. Etxebizitza, aisialdia, hezkuntza, hizkuntza... izango dira, besteak beste, ibilbide honetan jorratuko dituzten gaietako batzuk.

TANTAKA
Aita agirre, 5
Tel: 943 030 736
Pintxoak
Entsaladak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Razioak
Ondo pasa eguberrietan!

ZURE ALDE
ZA
ABOKATUAK
Gabon zoriontsuak!
Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.
Iñaki Gil Azpilicueta
Jausoro Plaza, 3 behea
Tel.: 943 531 351
Ignacio Vazquez Gonzalez
e-mail: zurealde@telefonica.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

CORDON VILARCHAO
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluak ezartzea
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra




**Haritz Bretainian.** Bretainiako Saint Malo herrian urtero egiten den Folklores du Monde jaialdira gonbidatu zuten Haritz dantza taldea. Jatorrian, Bretainiako kulturari erreferentzia egin nahi dion jaialdia da, baina urteekin, mundu osoko dantza eta musikak biltzen dituen jaialdia izatera pasatu da. Mazedonia, Togo, Peru, Irlanda, Galizia, Indonesia, Lituania, Brasil eta Bretainia bertako taldeekin batera haritu zen Haritz.



**Zuzendari aldaketa San Lazaron.** Idoia Artetxek ordezkatu zuen Begoña Mugertza San Lazaro egoitzako zuzendaritzan. Idoia Artetxe elgoibartarra da, 28 urte ditu eta Enpresen zuzendaritza eta kudeaketan lizentziatua da. Orain arte administrazio lanetan jardun du. Begoña Mugertzak 26 urte egin ditu San Lazaro egoitzan.




**Buruhandi berriak.** 25 urtez Elgoibarko kaleetan gora eta behera ibili ostean, Donald ahateak, ipotx zoriontsuak, Pinotxok eta Mickey Mouse saguak agur esan ziguten abuztuaren 23an. Atsedena hartzeko unea iritsi zaiela erabaki zuten Erraldoi eta Buruhandien konpartsako kideek eta Kultura Sailak, baina ez dute behin betiko erretiroa hartu, eta tarteka ikusiko ditugu oraindik ere, besteak beste, Elgoibarko auzoetako jaietan. Hauei laguntzera buruhandi berriak iritsi ziren aurtengo jaietan: amama, aitita, sorgina eta pirata.





**Txupinazoa!** Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak bota zuen San Bartolome jaiei hasiera eman zien txupinazoa. Itziar Aranbarri eta Edu Uranga guraso elkarteko kideak, eta Juanjo Bastarrika igo ziren abuztuaren 23ko eguerdian udaletxeko balkoira, eta elizako kanpaiak 13:00etako kanpai hotsak jotzearekin batera piztu zuten txupina.

**Lanbide Heziketako olinpiadak.** Jon Lapeira IMHko ikasleak urrezko domina lortu zuen maiatzean Madrilen jokatu ziren Lanbide Heziketako Skills olinpiar jokoetan. Emaitza horri esker abuztuan Brasilen jokatu zen munduko txapelketan hartu zuen parte.








**_Elgoibarko EAJ-PNVk eta EGIk jai zoriontsuak opa dizkizue elgoibartar guztioi!_**

**Istripu ikusgarria.** Herriko Antzoki aurreko oinezkoen gunean istripu bat izan zen irailaren 2an, arratsaldean. Mercedes etxeko auto bat han sartu eta bidean aurkitutako denak aurrean eraman zituen: Lanbroa tabernako terrazako mahaiak eta aulkiak lehenengo, farola bat eta jarleku bat azkenik. Zortez ez zuen inor harrapatu. Adineko gizonezko batek gidatzen zuen autoa eta lekukoen arabera istripua gertatu aurretik Lanbroa tabernaren parean aparkatuta zegoen.





**Reggaetoia ez zuten debekatu.** Hainbat komunikabidek zabaldutako informazioa okerra zela salatu zuen Elgoibarko Udalak. Izan ere, Udalak reggaetoia debekatu zuela esan zuten hedabideek. San Bartolomeen atarian Udalak bat egin zuen jaietan sexu indarkeria saihesteko Emakundek sortutako kanpainarekin. Besteak beste kanpainarako sortutako materiala banatu zieten tabernariei eta gazteei. Tartean zen tabernarientzat 15 abestiko *playlist* bat emakumeen burujabetza eta ahalduntzea sustatzen zuten kantuak proposatuz.

**Lokal berriak.** Egur Arte Tailerrak eta AEK euskaltegiak egoitza berriak ireki zituzten. Egurrek urterik gehienak Aita Agirre plazan eman ondoren, Udalak egoitza berria egokitu zion Merkatu Plazako lehen solairuan. AEK-k, berriz, Aita Agirretik Gabriel Kurutzelaegira egin zuen aldaketa.






USATORRE
Taberna
San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99
GABON ZORIONTSUAK IGARO!

TELLABIDE
ITURGINTZA
Berogailuak
Gasa
Aire egokitua
Erregai likidoak
Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com
Gabon zoriontsuak!



AHOLKULARITZA
BIKAIN
ASESORIA
Tel.: 943 744 557
Faxa: 943 740 408
e-posta: bikain@fonocom.es
Zerga-aholkularitza
Lan-aholkularitza
Kontabilitate aholkularitza
Antonio Arrillaga, 4 behea
20780 ELGOIBAR



**Biktimen memoria.** Jaurlaritzak bilera egin zuen EAEko hainbat alkaterekin biktimen memoriari buruz eta Ane Beitiak ere tartean zen. *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak herriz herri (1960-2015)* txostena aurkeztu zien Lehendakariak. Elgoibarko kasuan zortzi biktima jasotzen ditu zerrendak: Angel Berazadi, Anselmo Duran, Ramon Baglietto, Jaime Arrese, Jose Exposito, Jose Luis Gomez, Sebastian Aizpiri eta Javier Zabaleta. Herrian ere omendu zituzten biktiman urtero moduan.

**Debabarreneko lehen raida.** Hainbat kirol uztartzen dituen iraupen luzeko orientazio proba da raida eta irailaren 26an jokatu zen lehena Elgoibarren. 52 kilometro inguru eta 2.500 metroko desnibeldun ibilbidean 37 bikotek hartu zuten parte, tartean bederatzi elgoibartarrek eta bi mendaroarrek. Sailkapen nagusian, Arkaitz Irureta eta Joseba Elustondo elgoibartarrak hirugarren izan ziren.





**Mausitxako gazta sarituta.** Legazpin, Gipuzkoako Artzain Egunean Gipuzkoako Artzai Gaztaren 31. Lehiaketan Mausitxako gaztak eskuratu zuen lehen saria. Aurten sariketa gehiago ere irabazi ditu: Gourmetquesos lehiaketan urrezko domina ardi-gazta onduen kategorian eta zilarrezkoa gazta erdi onduetan; Araian; Elgoibarren; eta Gernikan urriko azken asteleheneko azokan. Bestalde, San Isidro egunean Iñigo Urkullu lehendakariak Mausitxa baserria bisitatu zuen.












**Haizea dator Iparraldetik.** Elgoibarko Izarrak Udalarekin eta herriko beste hainbat elkarte-erakunderekin elkarlanean, Euskal Herriaren iparraldea hobeto ezagutzeko zikloa antolatu zuen urria eta azarorako: Mixel Etxekoparren musika emanaldia; Xan Aire, Antton Luku eta Miren Artetxeren hitzaldiak; Ainhoa eta Donibane Garazi arteko ibilaldia; kantu bazkaria Aire ahizpekin; *Ederlezi* pastorala; eta Nahia x Matthys eta Xiberoots taldeen kontzertuak.

**Bederatzi aldiz Karakatera.** Iban Fernandezek bederatzi joan-etorri egin zituen segidan San Roke eta Karakate artean 12 ordu eta 10 minutuan. Bere buruari jarritako erronka izan arren lagunak izan zituen alboan.






**Jasone Osororen lan berria.** *12etan bermuta* eleberri inpresionista aurkeztu zuen Jasone Osorok. Berta protagonistaren bizitzaren errepasoa egin du kontatzeko modu berezian. Irakurketa jolas baten modura egitea proposatu zuen Jasone Osorok eta norbere barrura begira irakurri daitekeen liburua dela ere esan zuen.

Tel.: 943 741 011
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
URTE BERRI ON!
- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK
Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!
Zatoz informazio eske!

JAI-ALAI TABERNA
Kalegoen Plaza, 5 - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 740 021
Gabon zoriontsuak!

karkizano
Gabon zoriontsuak!
San Francisko, 14
Tel.: 943 740 349
Elgoibar






**Elgoibar, kantuaren hiriburu.** Hilabetero herriko kaleak alaitu ohi dituen kale kantarien taldeak antolatuta, lehen kantu eguna izan zen Elgoibarren, urriaren 31n. Besteak beste, Arrasate, Donostia, Barakaldo, Algorta, Deba, Eibar eta Elgetatik gerturatu ziren kale kantariak eta musika lagun euskal kantu ezagunak abestu zituzten kalean eta baita Maalan egindako bazkariaren ostean ere.

**Kondiak hartzekodunen konkurtsoa eskaria egin zuen.** Azken zortzi urteetan galerak izan ditu Kondiak lan-karga txikia izan duelako eta zorrak pilatu zaizkiolako. Inbertsiorik ere ezin izan du egin, eta enpresa bideragarri egin ezinak eraman du zuzendaritza egoera horretara. 63 langile ditu Kondiak eta kezka sortu da haiengan.



**Iñigo Lariz, eski selekzioko hautatzaile.** Iñigo Lariz Mendiko Eskiko Euskal Selekzioaren hautatzaile izendatu zuten 2015-2016 denboraldirako. Kadete, jubenil eta senior mailako eskiatzaileen lasterketetarako logistikaz ez ezik teknifikazioaz ere arduratu da. Eskia baina ez da Larizen kirol bakarra eta mendi lasterketa askotan parte hartzeaz gain emaitza esanguratsuak ere lortu ditu. Besteak beste Kilometro bertikalen Euskadiko Kopako txapeldun izan zen. Euskal Herriko lasterketa bertikalen txapelketa ere irabazi zuen VII. Zuzenien kilometro bertikalean Xoxote puntara lehenengo iritsita Herrira etorrita, Iñigo Larizek 11 segundoan ondu zuen aurten Nahaste Borrasteko errekorra eta Karakateko igoeran ere irabazle izan zen.




GABILONDO
317 api
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua
API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo
HIGIEZINEN SEKTOREKO PERITU JUDIZIALA
Gabon zoriontsuak!
www.inmobiliariagabilondo.es
SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR- Tel: 943 74 44 67



**Maite Maiora podiumetan.** Sailkapeneko hirugarren postuan amaitu zuen kilometro bertikalen Munduko Kopa Maite Maiora mendaroarrak. Distantzia ertaineko mendi lasterketen Munduko Kopan, berriz, podiumaren atarian geratu zen. Mauritius irlan eta Italian jokatutako probetako bigarren postuak eta Suitzan, Ameriketako Estatu Batuetan eta Hong Kong-en lortutako hirugarrenak hartu zituzten kontuan laugarren tokian amaitzeko. Euskal Herrian ere proba askotan igo da podiumera: Mendi lasterketen Euskal Herriko lasterketen txapelketa irabazi zuen eta etxean, Kilimon Trail lasterketan lehena izan zen besteak beste.



**Bandan 50 urte.** Santa Zezilia egunean omenaldia jaso zuen Luis Mari Zubiaurre Lodoso, Udal Musika Bandako klarinete-joleak. Aurten bete da mende erdi Aste Santuko prozesioan bandarekin jendaurrean lehen notak jo zituenetik. Etxetik musika zaletasuna jaso eta fisikoki ondo dagoen bitartean bandan jarraituko du.




**Ametsen liburua kalean.** Jokin Urain preso ohi mendaroarrak koordinatutako *Ametsen liburua* kaleratu zuten. 474 preso, preso ohi, deportatu eta erbesteraturen eta 47 euskal artistaren amets, desio eta sentimenduak jasotzen ditu lanak. Tartean daude Aitor Etxeberria artista mendaroarraren eta Elgoibarko Arnaldo Otegi, Juli Arregi, Inaxio Iriondo, Mikel Alberdi, Iñaki Odriozola eta Ane Beristainen marrazki eta idatziak. Jokin Urainek hitzaurrea eta etxekoei idatzitako gutuna sartu ditu.



**Loidi eta Kortabarria eskubaloi selekzioetan.** June Loidi eta Nora Kortaberria eskubaloi jokalariek Espainiako eta Euskal Herriko selekzioen deia jaso zuten. Loidik Sanloko kadete eta jubenilen mailan jokatzen du eta azaro amaieran Polonian jokatu zuen Espainiako selekzioarekin. Kortaberria, Zarauzko Aiala taldean aritzen da Espainiako Emakumezkoen Ohorezko Mailan eta Euskal Selekzioarekin Getxon jokatu zuen.







**Brontze Aroko aizkora gordailura.** Elgoibarren, Morterika inguruan, aurkitutako Brontze Aroko aizkora Gipuzkoako Ondare Higigarrien Zentroko Gordailuan utzi zuen Jose Julian Marquezek duen balio historikoarengatik elgoibartar eta gipuzkoarren esku egoteko. Gainera, erremintamakinaren hiriburuan aurkitutako metalezko piezarik zaharrena da.




**'Beitxu, Beitxu' lipdub jendetsua.** Euskararen egunaren aitzakian *Beitxu Beitxu!* kantuan oinarritutako lipduba grabatu zuten azaroaren 28an. Maalatik Kalegoen plazara arteko ibilbidean herriko 60 talderen ordezkariek eta herritarrek hartu zuten parte, 1.000 lagun inguruk. Elgoibarko 365 ekimeneko talde eragilea elgoibartarron euskalduntasuna aldarrikatu zuen.














**Argia Ereiten saria Josu Esnaolarentzat.** Euskararekiko izan duen konpromisoagatik eta, bereziki, orain dela 19 urte, Getxon, Berbalaguna ekimena abian jarri zuelako, Argia Ereiten Euskara Saria eman zion Getxoko Udalak Josu Esnaolari Alfredo Lopes Gereñurekin batera. Sortzez elgoibartarra da Esnaola, baina urte asko da Getxora joan zela eta Euskaltegiko irakasle lanetan aritzen da.



**Joseba Zinkunegi epaitua.** Ezker abertzaleko buruzagitzako kide izatea leporatuta, Joseba Zinkunegi eta beste 34 euskal herritarren aurkako epaiketa hasi zen. Fiskaltzak bakoitzarentzat hamar urteko kartzela zigorra eskatu zuen. Ezker abertzalearen egitura politikoa desegiteko Seguran sarekada egin eta handik lau hilabetera, 2008ko otsailean, atxilotu zuten, bi urtez kartzelan egon eta abenduan hasitako epaiketak luze jo dezakeen ustea dute.



**'Metalaren arrastoak', Arrillaga eta Zapparoliren eskutik.** Argazki liburua eta erakusketa aurkeztu zituzten Edu Arrillagak eta Esmeralda Zapparolik *Metalaren arrastoak* izenburupean. Elgoibarko industriaren alderdi humanoa iruditan jaso nahi izan dute. 37 enpresatan ateratako argazkiak jaso dituzte eta askotariko arloak islatzea izan da asmoa: galdaragintza, soldadura, molde eta planogintza… Zuri-beltzeko argazkietan alde humanoarekin batera espazioak eta objektuak ere ikusarazi dituzte.



# TXANKAKUA

## ELGOIBARKO MERKATARIAK

**Elgoibarren bizi**
**Erosi**
**Herriak Irabazi !!**

# 1.800€
## oparituko ditugu!



Ikus bideoa

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# “Nor bere burua zenbat eta askeago, hurrunago iristeko aukera dago”

## RUPER ORDORIKA KANTARIA

**Arnaldo askatu! Politika askatu herri ekimenak antolatuta Ruper Ordorika kantari oñatiarraren kontzertua izango da urtarrilaren 8an Elgoibarko Herriko Antzokian. Kontzertuari buruzko zertzeladaren bat edo beste emateaz gain, bere musika ibilbideaz ere aritu zaigu Ordorika. Hitz eta kantaera bereziak dituen abeslaria hiru musikarik lagunduko dute kontzertuan.**

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Arg.: Oskar Alegria

**◆ Kantaldi politikoen beherakadan hasitakoa zara. Emanaldi honek badu arrazoi politikorik. Zuretzat berezia izango al da?**

Bai, dudarik gabe. Proposamena jaso nuen plataformatik Arnaldo eta bere egoeraren harira grabazio batean parte hartzeko eta pentsatu nuen egokiagoa zela kontzertua antolatzea. Herri musikak beti izan du joera hori, gehien bat oinarririk gabeko egoera baten aurrean gure erantzuna erakusteko musikaren bitartez.

**◆ Elgoibarren aurrez jotakoa zara. Nola aurreikusi duzu oraingo kontzertua?**

Urte asko pasa dira Elgoibarren jo nuenetik eta pentsatzen dut areto berean izango dela. Saio hau, ordea, beste ildo batetik dator eta onuragarria izango da. Ez dut oraindik prestatu, baina espero dut kontzertu polita izatea. Azken lanak oinarrian hartuta, baina denetariko kantuak izango dira eta zerbait bereziagoa ere pentsatuko dut kontzertuaren testuingurua zein den kontuan hartuta. Agian kantatuko dut gai horren inguruan egin dudan zerbait. Sasoi berezi batean gabiltza, gauza asko birpentsatzeko urteak dira eta testuinguru hortan Arnaldo eta bere kideen gaia nahiko zentrala da. Edozein burutazio edukiz gero gai horri buruz kantaldia hor kokatu behar da eta horren inguruko zerbait egingo dut. Berria den zerbait baino ohikoa ez dena, beharbada beste norabide bateko kantu batzuk-edo.

**◆ Bakarlari irudia jartzen zaizu baina ia beti musikari lagunekin aritzen zara. Elgoibarren ere hala egingo al duzu?**

Orain batzuetan ibiltzen naiz bakarka eta gustura, asko ikasten ari naiz, baina Elgoibarrera taldearekin joango naiz. Musikariekin aritzea ez da apaingarri bat, beste esparru batera iristen naiz askotan. Azken urteotako laukotea joango gara: Hasier Oleaga, baterian; Arkaitz Miner, gitarra, biolina eta mandolinarekin; Lutxo Neira, bajuan; eta ni neu.

**◆ Hitzek garrantzia dute zure kantuetan eta asko zuk eginak dira. Ez da erraza izango berritasunez janztea, ezta?**

Lehenengo diskoa duela urte asko osorik egin nuen Bernando Atxagaren testuekin eta gero egin nuen beste bat osorik Joseba Sarrionandiarenekin. Bigarren diskotik, hasi nintzen nire kantuak sartzen. Gauza naturala da, nor bere barrukoa askatzeko. Ez da erraza izaten gauza berriak ateratzea eta behartzea ez da ona. Momentuan harrapatu behar nau eta harian-harian datorren horri bidea eman. Nor berak zer eskaini dezakeen jakin behar du eta horretarako beste nonbait jartzen dut burua.

**◆ Eta doinuetan?**

Hori erreka bat bezalakoa da. Urez betea dator eta iturri horretatik hartzen dut. Horretarako adi egon behar da eta ni saiatzen naiz ahalik eta libreen jolasten horren aurrean. Batzuetan aurreiritziak ez dira lagungarri horretan. Norberak ekin behar du bere eginkizunean eta libreago izanik gauzak errazago ateratzen dira,

nahiz eta gero horri ofizioa, nor bere ezaguera erantsi behar zaion. Nor bere burua baino epaile zorrotzagorik ez dago.

**◆ Askotan kanpotik musikariak estilo batera edo bestera lerratzen ditugu. Zuk zeuk zure burua estilo zehatzen batean ikusten duzu?**

Nik uste dut alor ezberdinak jo ditudala urte hauetan guztietan formalki, baina beti kantuaren inguruan egon naiz, gehienetan banda batekin, baina estilo zehatz batean ez. Hitza, ahotsa, doinua… kantua niretzat genero bat da bere horretan, ez da poesia eta ez da musika soila bien arteko uztarketa oso primitiboa eta hortan dihardut.

**◆ Zure ahotsa berezia dela sarri entzun izan da. Zuk zeuk zure ahotsari edo kantaerari buruz sekula entzun duzu ezer berezirik?**

Gogora datorkit mundu klasikoko kantari handi batek esana. Ameriketan ezagutu nuen eta, behin, hemen nire kontzertu batean suertatu zen eta esan zidan harrituta zegoela nire arnasketarekin. Nik ez dakit hori egiten denik ere, gu autodidaktak gara eta barrutik egiten dugu, ahal den moduan, eta teknikoki berari deigarri egin zitzaion hori.

**◆ Dena dela azken diskoetan beste modu batera heldu diozu ahots kontuari, ezta?**

Nor bere burua zenbat eta askeago hurrunago iristeko aukera dago. Gainera, diskoak mundu berezia dira eta grabazioetan erabilitako bideen arabera ondorio bat edo beste ekar dezake.

**◆ Berriki zuk esana da euskal kulturak ez duela zorte handirik eta eskaintza handiagoa dela eskaria baino.**

Testuinguru zehatz batean egindako adierazpena da. Zorte kontuarena esan nuen uste dudalako oso urte zailak pasa ditugula eta horren aurrean botere pixka bat izan dutenek ez dutela maiz jakin nola jokatu. Gerra osteko urteetan, Errepublika garaian, esaterako, hemen zeuden idazle gehienek alde egin behar izan zuten eta belaunaldi hura ez zen ordezkatu, dena birrasmatu behar izan zen. Gero, autonomiaren munduan sartuta egon da boteretxo bat, baina noraezean, esaterako, ETB bi kanaletan banatzean. Zentzu horretan esan nuen ez dugula zorte handirik izan, euskal kulturaren irakurketa politikoan anabasa handia egon delako. Ez da irizpide handi bat egon ahalmena zeukatenen eskutik. Bestalde, eskaintza eta eskariarena nik hala sentitzen dut kasu pertsonaletik. Harritu egiten naiz hainbeste gauza berri ikusten ditudanean zeharo pasatzen direnak radarraren azpitik gauza interesgarriak diren arren. Hori hala da hemen eta han eta ez dugu testuingurua galdu behar ezta kontsumoaren mundua nolakoa den ahaztu behar. Baina hori ez dugu porrotez jantzi behar, zer zuzendua badago eta baita non lan egin.

*"Ez dugu zorte handirik izan, euskal kulturaren irakurketa politikoan anabasa handia egon delako"*

**◆ Iaz kaleratu zenuen azken lana. Esku artean ba al duzu beste egitasmorik?**

Bakarkako kontzertuekin ari naiz, baita taldearekin ere eta kantutxoak egin nahian. Beti ibiltzen gara asmatzen baina helburu zehatzik gabe. Halako batean ganbara beteta dudala sentitu eta orduan jarri ohi naiz disko batekin.

**◆ 35 urte ez dira gutxi kantuan. Oraindik luze jarraitzeko asmoz?**

Lehen diskoa egin nuenean ez nuen pentsatu ere egin eta orain datorren bezala hartzen dut noiz arte izango den inoiz jakin gabe.

**◆ Elgoibarko kontzertura nola gonbidatuko zenuke jendea?**

Testuinguru horretan ezer gutxi beharko da babesa lortzeko, baina kontzertu bat izango da ez besterik eta kontzertu polita entzungo dutela da eman dezakedan agindua.

## Abestia eta bideoklipa Arnaldo Otegiren askatasuna eskatuz

*Free Otegi-Free them all* nazioarteko kanpainak askatasun eskaria askatasun aldarri bihurtuz, Euskal Herriko hainbat musikari, abeslari eta artista batu ditu, guztien artean abesti bat grabatzeko eta mundu osoan zehar zabalduko den bideoklip bat egiteko. "Hitzaren aldeko apustua egiteagatik preso dagoen ahots bat isildu nahi izan dutenei erantzun nahi zaie, hainbat ahotsen batasunarekin, hitzez eta kantuz", diote egitasmoaren sortzaileek. Talde artistiko eta teknikoa batuta dago eta abeslarien artean daude Jon Gurrutxaga eta Uxue Alberdi elgoibartarrak ere.

Euskal Herriko bazter guztietan entzungo den abesti bat osatzea da helburua eta komunikabide tradizionalen zein Sarekoen bidez mundu osoan ikusiko den bideoklip bat sortzea, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez.

*Free Otegi-Free Them All* kanpainaren manifestuak dio "Gizatasunagatik. Justiziagatik. Garaile eta garaiturik gabeko irtenbidean sinesten dugulako. Bakearen aldeko apustua egiten dugulako. Horregatik Arnaldo Otegiren askatzea eta presoen Euskal Herriratzea eskatzen dugu". Eskaera kantuz ere egiteko Euskal Herriaren laguntza da eskatu dutena. Karena.eu orrialdean dago egitasmoari buruzko informazio gehiago.

Arnaldoren kaleratzea eskatuz kantuak badu lekua Elgoibarren ere. Ruper Ordorikaren kontzertua urtarrilaren 8an izango da Herriko Antzokian 20:30ean. Sarrerak salgai daude 12 euroren truke Tantaka tabernan, Pitxintxu opari-dendan eta Garate jantzi-dendan.



Uzuri optika audio

www.uzurioptika.com

37 URTEZ ZUEKIN

RPS: 183/12

San Francisco, 21
20870 ELGOIBAR
Tel: 943740359

Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

Gure urteurrena ospatzeko oparia:
Boleto hau ekarriz gero
10€ko deskontua
eskuratuko duzu zure erosketan.
Erosketa bakoitzeko txartel bat.

PAGOERROTA
iturgintza





Duscholux etxeko dutxa-itxituretan
% 40eko deskontua,
modelo hauetan:

Serie Gredel
Plus Evolution
Plus Evolution Giro
Egipthia
Basic

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 758 044 - Faxa: 943 756 037 - Sakelekoa: 659 334 323
www.pagoerrotaiturgintza.com - pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com



UNCETA

te desea Feliz Navidad y un Productivo 2016!
Gabon Zoriontsuak eta 2016 urte Emankorra opa dizuegu!
wishes you a Merry Christmas a Productive 2016!
deseja-lhe um Feliz Natal e um Excelente 2016!

SARIKI · UNCETA · LABMETRO

talleres ZAILDU S/L

- Makineria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean planoekin egindako lanak.
- Prentsa GOITI eta mandrinadora AYCEren mantenimendua.

Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!

Santa Klara, 40 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 760 - Faxa: 943 743 995
zaildu@zaildu.com - www.zaildu.com

Gabon zoriontsuak!

PSOE

# Koro Gabiola eta Iñaki Iraola Gabonetan Lesbosera joango dira errefuxiatuei laguntzera

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Milaka migratzaile ari da Turkia eta Greziaren arteko muga itsasoz zeharkatzen. Errefuxiatuen gaia azkenaldian komunikabide askotako lehen lerroetatik baztertu duten arren, oraindik asko dira Europara ihes egiten dutenak.

Egeo itsasoa zeharkatu eta Greziako Lesbos irlara iritsita, lehen uneetan laguntza behar izaten dute eta asko dira boluntario modura babes hori eskaintzen duten elkarteak eta norbanakoak.

Beharra dagoela ikusita Elgoibartik hara abiatu eta abenduaren 27tik urtarrilaren 5era bitartean Lesbosen laguntzen arituko dira Koro Gabiola eta Iñaki Iraola. Aurrez ere elkartasun lanetan ibilitakoak dira. Kirol zaleak izanik bizikleten osagaiak baliatuz belarritakoak, pultserak, gerrikoak... egin, saldu eta lortutako diruarekin Keniako eskola baterako zazpi bizikleta erosi zituzten. "Aste Santuan Keniara joatekoak ginen, baina Grezian beharra zegoela ikusi eta Gabonetan oporrak izanda zerbait probetxuzkoa egin eta laguntzea pentsatu genuen", esan digu Iñaki Iraolak.




## Kanpamendua hondartzan

Talde pila bat daude laguntzen eta Lighthous.ekin egin dute kontaktua, baina hara iritsi arte ez dute jakingo zein izango den beren eginbeharra. Itsasontziak antzeman eta larrialdiak aurreikusi ondoren, lehorreratze seguruak ziurtatu eta jendeari, iristen direnean, hondartzan lehen laguntza ematen diete. "Hondartzan daukate kanpamentua zuhaitzen babesean eta han mediku-arreta, jatekoa, ura, arropak eta mantak ematen dizkiete errefuxiatuei iristen direnean. Handik 2,5km. igo behar dituzte autobusak jasotzen dituen lekura. Ilunabarrean edo gauez iristen badira, ordea, autobusik ez dagoenez, lehen gaua han pasatzeko argindarra eta euritako dendak jartzen dizkiete, baita jatekoa prestatu ere. Mantenuan ere jarduten dute hondartzak eta kaleak garbitzen".

Korok eta Iñakik, logistika kontuengatik arropa eta horrelako gutxi batzuk baino ez dituzte eramango. "Lighthous-ekoekin hitz egin genuen eta esan ziguten onena dela esku-dirua eramatea. Biztanle gutxi direnez, Lesboseko irlakoak ahalegin handia egiten ari dira eta errefuxiatuen kopurua pairatzeak hango ekonomian eragina du. Beraz, hemendik material guztia bidali ordez fundazio horiek nahiago dute materiala han erostea irlako ekonomia mantentzeko", dio Iraolak.

> "Hemendik materiala bidali ordez nahiago dute materiala han erostea irlako ekonomia mantentzeko"

Asko, hara joaterik ez izan arren laguntzeko prest daudenez, diru-laguntza jasotzeko kanpaina jarri dute abian *youcaring.com* plataformaren bitartez. Gutxienez 1000 euro lortzea da helburua –lehen hiru egunetan 500 batu zituzten–. Horrez gain, ES87 3035 0007 22 0071131890 kontu zenbakian, Koro Gabiola Colinaren izenean ere sartu daiteke dirua laguntzaileen izen-abizenak zehaztuz, gero, beren facebookeko perfilean jartzeko. Bestalde, Elgoibarren hiru itxulapiko jarri dituzte: Rosa liburu dendan (BM), Pausoak zapata dendan eta Ilunpe Tabernan. "Dirua ez da gure bidaia ordaintzeko, Lesbosekoei laguntzeko baizik".

## Egin beharrak jakin gabe

Jakin ez dakite han zer aurkituko duten. "Orain gutxira arte errefuxiatu gehien gu egongo garen leku ingurura heltzen ziren, baina gauza erabat aldatu, eta gehienak hegoaldera heltzen hasi dira. Ez dakigu gu iritsitakoan nola egongo den gauza, eta momentuz leku berera joango gara", esan digu Korok. Iñakiren hitzetan, "Turkiak mugak itxi ditu eta uste dugu panorama ez dela ona izango. Telebistan ez da apenas ezer agertzen, baina iristen jarraitzen dute".

Korok eta Iñakik bertatik bertara ikusiko dute egoera eta baita lagundu ere. Nahi duenak diruz laguntzeko aukera ere badu oraindik aurrez aipatutako helbidean.

# Antxustegi




**Olaso Industrialdea, Olasope 5**
**Elgoibar**
**943 743 344**
**www.antxustegi.com**

ZERAMIKA ETA HARRIA
LURZORU LAMINATUA
MARGOZTUTAKO PAPERA
BAINUGELA
BURDINDEGIA
ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK





HURRENGO ERAIKUNTZA

# UZTARRI ETXEAK

11 Kalitatezko etxebizitza Elgoibarren

Etxebizitza **erabilgarri eta erosoak,** zentzuzko prezioan.

Kokapen ezin hobean: herrigunetik 5 minutura oinez eta zerbitzu guztiak eskugarai. Elgoibarko Santa Klara, 11 zenbakian.

- 90 eta 60 metro karratuko etxeak ( 2 eta 3 logeladunak)
- Terraza zabalak eta orientazio egokiarekin
- Trastelekua barne eta aparkalekua aukeran
- Sukalde, jangela eta egongelarekin loturiko terraza
- Sukalde hornitua eta horma-armairuak

Zure beharretara antolatutako etxebizitzak dira, eta kalitate goreneko materialekin egindakoak.

2 LOGELA 120.000tik AURRERA

3 LOGELA 227.000tik AURRERA

Salmenta:
**943 741 528**
www.bikun-eraikuntzak.com

Finantziaketa: CAJA RURAL DE NAVARRA

BIKUN ERAIKUNTZAK



# Lanbroa

Pedro Muguruza, 5
Tel.: 943 743 811 / 943 740 806

## Gabon zoriontsuak herritar guztioi!

◉ EGUNEKO MENUAK ◉ MENU BEREZIAK ◉ PLATER KONBINATUAK
◉ BOKATAK ERAMATEKO ◉ PINTXOAK

# ibai-ondo erretegia

**943 256 028**







# Debabarreneko orkestra sinfonikoa sortzeko lehen pausoak ematen ari dira



Jose Miguel Laskurain orkestra sinfonikoen zuzendaritzan lizentziatutako eibartarra Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa eratzen hasi da bailarako musika eskolekin elkarlanean, eta Elgoibarko eskolakoek interesa erakutsi dute. Sokazko instrumentuak jotzen dituzten 11 lagunek eman dute izena. "Ez dago partaide kopuru zehatzaren beharrik. Orain 21 gaude eta erdia Elgoibarko eskolakoak dira, orkestra sinfonikorako gutxi gorabehera bikoitza beharko genuke", dio Laskurainek.

Orkestra sortu nahi izan du Debabarrenean instrumentistek toki bat izan dezaten jo ahal izateko. "Bandak eta txarangak badaude, baina orkestrak ez. Beraz, ikasketak bukatu eta askok utzi egiten dute. Eibarren edo Elgoibarren bakarrik sortzea zaila da, beraz, erabaki dugu ideia Debabarrena osora zabaltzea". Modu honetan, musika eskoletan ikasketak amaitzen dituzten ikasleek orkestran sartzeko aukera izango dute eta ikasleek erreferentzia puntu bat izango dute. Interesa dutenek Naroa Garcia biolontxelo irakaslearengana jo behar dute.

## Urrezko Bikain ziurtagiria jasoko du Elgoibarko Izarrak

Azaroan, Elgoibarko Izarra kultur elkartea Bikain Euskara Kalitate Ziurtagiriko ebaluazio prozesuan murgilduta egon da, eta ebaluatzaileek mailarik gorena eman diote, urrezkoa. Ziurtagiria ofiziala da, eta Jaurlaritzak ematen du. Banaketa ekitaldia abenduaren 21ean izango da Gasteizko Europa biltzar jauregian. Iñigo Urkullu lehendakariak ekitaldian parte hartuko duela iragarri du.

Osasun gida



























# Amuriza, Egaña, Lujanbio, Maia eta Martin abenduaren 28ko bertso saioan



Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere bertso saioa antolatu du Elgoibarko Izarrak Gabonen bueltarako. Abenduaren 28an, astelehenean, izango da saioa, 22:00etan Herriko Antzokian.

Miren Amuriza, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Alaia Martin arituko dira bertsotan Uxue Alberdi elgoibartarra gai-jartzaile dutela. Iazko kartela ia errepikatu egin dute antolatzaileek. Azken urteotan ohikoak diren Egaña eta Lujanbioz gain, Miren Amuriza eta Jon Maia ere izan ziren iaz. Azken hau bihar, zapatuan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean lehiatuko da, baita aurten Herri Antzokian izango den Alaia Martin ere.

## Talo ikastaroa izango da zapatuan

Elgoibarko Izarrak eta Gure Esku Dago dinamikak talo ikastaroa antolatu dute, doan. Bihar, abenduak 19, izango da 10:30etik12:30era Gure Bide elkartean. Ikasi ez ezik Gabon Zaharreko Ferian, abenduaren 26an Gure Esku Dagok estreinakoz talo postua jarriko du Salento tabernako terrazan. Taldeak nahi eta behar du postuan ahalik eta jende gehienak parte hartzea eta deialdia egin du.

## 'Bohemioen kluba' antzerkia berriz

Taupada antzerki taldeak Bohemioen kluba antzezlana estreinatu zuen ekainean eta gaur, abenduak 18, berriz taularatuko du Herriko Antzokian 22:30ean. Parisko Montmatre auzoan kokatuta dago ikuskizuna, Bigarren Mundu Gerraren ostean. Edurne Lasa da zuzendaria, Joxe Mari Larrañaga argiztapen eta musika arduraduna eta protagonistak Elgoibarko aktoreak dira.

## Leire Eguren eta June Arregi jaiotza lehiaketako irabazle



Jaiotzen 29. lehiaketa egin zuten joan zen domekan Parrokiako Katekesiak antolatuta. 67 umek hartu zuten parte eta guztira 22 jaiotza aurkeztu zituzten. Leire Egurenek eta June Arregik egindako lanari eman zioten lehen saria epaileek . Kanaberekin egindako jaiotza aurkeztu zuten lehiaketara. Lehiaketako jaiotzak Errosario kaleko 21. zenbakiko erakusleihoan jarri dituzte ikusgai urtarrilaren 7ra bitartean.

## Kultur Etxean eta Udaletxeko harreran daude 2016ko egutegiak

2016ko egutegia aurkeztu zuten eguaztenean. Kultura, artea eta ondarea irudikatu dituzten argazkien egileak Cristina Lopez, Oier Ramos, Gurutze Ariznabarreta, Eulogio Mancebo, Miguel Angel Gutierrez, Manuel Sanchez, Antonio Curbelo, Vicente Guinea eta Maria Exposito dira. Eskuko egutegi txikiak etxeetako postontzietan banatuko dituzte eta handiak Kultur Etxean eta udaletxeko harreran daude eskuragai.



# Arkaitz Egaña ehiztaria Espainiako txapeldun, bigarrengoz

Espainiako Ehiza Xehe Txapelketa irabazi zuen Arkaitz Egaña ehiztari elgoibartarrak, joan den abenduaren 12an, Soriako Castillejo de Robledo herrian. *Sol* txakurraren laguntzarekin bi eper, oilagor bat eta erbi bat ehizatu zituen Egañak. Fernando del Campo madrildarra sailkatu zen bigarren postuan, eper bat eta hiru erbi ehizatuta. Honenbestez, iazko txapelketan lortutako postuak elkartrukatu zituzten bi ehiztariek. Garaipen honekin bigarrengoz irabazi du Egañak Espainiako txapelketa, 2012koa ere irabazi baitzuen.



# Astelehenean banatuko dituzte kirol federatuaren urteko sariak



Abenduaren 21ean, astelehenean, banatuko ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Kirol Federatuaren 2015eko Sariak. Musika eskolako auditorioan egingo den sari banaketa ekitaldiaren aurretik, baina, mahai-inguru bat izango da, aurreko urteetan egin izan duten legez, eta aurten izen handiko lau pilotari izango dira solasaldian: Aimar Olaizola, Juan Martinez de Irujo, Iñaki Artola eta Jokin Altuna. Pilotaren inguruan berba egingo dute. Ondoren egingo da sari-banaketa eta herriko 19 kirol taldek euren taldeetan nabarmendu direnak sarituko dituzte, direla kirolari, entrenatzaile, laguntzaile, zuzendaritzako kide edo babesleak. 19:30ean hasiko da ekitaldia.

## Domekan amaituko da Elgoibarko 25. Xake Txapelketa

Astelehenean hasi zen Elgoibarko 25. Maisuen Nazioarteko Xake Txapelketa, eta domeka eguerdian argituko da zein den aurtengo txapelduna. 13:30ean egingo dute sari banaketa ekitaldia udaletxeko pleno aretoan. Izen handiko hamar xakelarik parte hartu dute aurtengo txapelketan, tartean Gustavo Barrenetxea elgoibartarrak.



## Maite Maiora, hirugarren Malagako maratoian

Asfaltoan mendi lasterketetan bezain ondo moldatzen dela erakutsi du Maite Maiora antxitxikari mendaroarrak. Malagako maratoian hartu zuen parte abenduaren 6an, domekan, eta hirugarren egin zuen.

John Kipkorir Mutai, gizonezkoetan, eta emakumezkoetan Ndungu Pennina Wanjiruk atleta keniarrak gailendu ziren Malagako Cabberty maratoiaren seigarren edizioan. Emakumezkoetan probako errekorra ondu zuen Penninak, 02:37:47ko denborarekin. Anna Spagnoli italiarra sailkatu zen bigarren postuan (02:42:32) eta Maite Maiora mendaroarrak egin zuen hirugarren, 2:49:39ko denborarekin.



# Elgoibarko binakako aizkolari txapelketa jokatuko da urtarrilaren 3an



Urtarrilaren 3an Urteberri Binakako Aizkolari Txapelketa jokatuko dute Kalegoen plazan (12:00), Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Sigmako Probaleku Herri Kirol elkarteak antolatuta. Hiru aizkolari bikotek parte hartuko dute (Olasagasti-Zubizarreta, *Bihurri*-Larretxea eta Arria V-Telletxea) eta neurri desberdinetako zortzi enbor moztu beharko dituzte. Jaialdi berean bi aizkolari gazteren arteko erronka ikusteko aukera ere izango da. Hodei Ezpeletak eta Ioritz Zelai III neurtuko dituzte indarrak. 16 urte ditu lehenak eta 18 bigarrenak. Emakumeei dagokionez, Idoia Etxeberria harri-jasotzen arituko da eta txingekin erakustaldia emango du Santa Souzak.

# Zartako arkulari Javier Varona Gipuzkoako txapeldun

Gipuzkoako 25. Arku Tiraketa Txapelketa jokatu zen joan den domekan Olaizaga kiroldegian. 50 arkularik baino gehiagok hartu zuten parte modalitate ezberdinetan, tartean Elgoibarko Zarta arkulari taldeko bost kidek. Horietako batek, Javier Varonak, lehenengo postua lortu zuen arku instintibo modalitatean.


*Arg.: Aitor*

## Emaitzak

**FUTBOLA**
Haundi 1 - Anaitasuna 4
Elgoibar 2 - Texas Lasartearra 0 (Erreg.)
Mondragon 3 - Elgoibar 1 (Jubenilak)
Elgoibar 3 - Arrasate 0 (A Kadeteak)
Elgoibar 1 - Zestoa 2 (B Kadeteak)
Aretxabaleta 1 - Elgoibar 3 (Oho. inf)
Elgoibar 2 - Astigarraga 3 (Inf. Txiki)
Lagun Onak 3 - Elgoibar 2 (Aleb.)

**ARETO FUTBOLA**
Concepto Egile 0 -Colo Colo 4 (Naz B)
Murillo 3 -Concepto Egile 4 (Naz B)

**SASKIBALOIA**
Viento Sur 68 - Astigarragako Mundarro 42

**ESKUBALOIA**
Errotaberri 20 - Lauko Elgoibar 18 (Senior emak.)
Alcorta Forging Group 26 - Anaitasuna 26 (Senior giz.)
Donibane 22 - Gabaz Elgoibar 16 (Sen. giz.)
Tecnifuelle 18 - Bera Bera 18 (Jub. nesk)
Beristain Banaketak 35 - Saieko 29 (Jub. mut.)
Deca Elgoibar 35 - Bankoa Elg 23 (Kad. mut.)
Pneumax 22 - Bera Bera 19 (Kad. nesk)
Dario Bus 31 - Eibar A 17 (Inf. nesk.)
Cometel Elg 25 - Trapaia Pulpo 14 (Inf. nesk.)
Federopticos Ikus 15 - Trapaia Pulpo 18 (Inf. nesk.)
Murgil Elg. 20 - THotel Txarriduna 19 (Inf. mut.)

## Agenda

**ESKUBALOIA** (Olaizagan)
Zapatua, 19
10:00 Txarriduna – Pulpo (Inf. mut.)
11:15 Bankoa – Urnieta (Kad. mut.)
17:00 Astigarraga – Ereintza B (Kad. nesk.)
Domeka, 20
10:00 Bankoa – Saieko (Kad. mut.)
11:30 Deca – Bidasoa A (Kad. mut.)
13:00 Gabaz – Decotena Pulpo (Sen. giz.)

**FUTBOLA** (Mintxetan)
Zapatua, 19
16:30 Elgoibar – Ordizia (Oho. jub.)
Domeka, 20
09:30 Elgoibar- Anaitasuna (Benj.)
10:35 Elgoibar- Anaitasuna (Aleb.)

## Mendaroko haur krosa, bihar

Eguberrietako IV. Haur Krosa antolatu du Mendaroko Txirrindulari Elkarteak, haurren artean kirolerako zaletasuna sustatzeko asmoz. Zapatuan, hilaren 19an, izango da, Mendarozabalen, 17:00etan. Izenemateak lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago egingo dira han bertan. Izen-ematea doan izango da eta parte hartzaile guztiek domina eta gozoki poltsa bana jasoko dituzte. 2004. urtetik 2010era bitartean jaiotako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute.



## LANA

### Eskaerak

Garbiketarako edo adinekoak zein umeak zaintzeko.
631 748 977

Garbiketarako edo adinekoak zein umeak zaintzeko.
632 454 417

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest, baita orduka ere. 685 263 228

Garbiketa lanetarako prest nago. 626 603 673

Lehen eskuntzako umeei klase partikularrak emateko prest.
644 297 578

Interna moduan lan egiteko edo gauez orduka zaintza lanak egiteko prest. 632 408 771

Nagusiak zaindu edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. 661 064 027

Nagusiak zaindu edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. 606 354 982

Adineko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 722 554 395/602 419 148

LHko haurrei eskola partikularrak emateko prest nago. Bereziki ingelesa. 666 667 183

Gau eta arratsaldeetan pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Gida-baimena dut. 631 343 232

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, orduka eta baita etxean bertan bizi izaten ere. Esperientziarekin eta erreferentzia onekin. 626 407 923

Edozein lan egiteko prest nago. 632 459 224

Elektrizitate –diploma daukat–, pintura edo iturgintza lanetan jarduteko prest, baita adinekoak zaintzeko ere. 632 873 111

Adinekoak zaintzeko prest, interna moduan. Esperientzia eta erreferentzi onekin. 632 488 771

Etxeak, lokalak, tabernak... garbitzeko prest nago. Berehala lanean hasteko prestutasuna. Erreferentzia onak ditut. 648 039 187

Lantegietako biltegietan lan egiteko prest (esperientziarekin). Baserrietako animalien zainketan eta egurra mozten aritua. 632 617 342

Garbiketa lanetarako prest, interna edo externa moduan. Dendari moduan ere esperientziarekin. 602 172 993

Arratsaldeetan umeak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz eta esperientzia dut. 615 734 462

Sukaldari laguntzaile lanetarako eta adinekoak zaintzeko prest nago. Janari manipulatzaile titulua eta nagusiak zaintzeko ikastaroak eginak ditut.
661 064 027

Pertsona nagusiak zaintzeko prest, esperientzi haundia, lehen sorospen tituluduna, orduka lan egingo nuke. 632 687 874

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 667 301 325

Portalak garbitzeko prest nago. 617 571 210

Lan egiteko prest nago. 602 815 492

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 631 562 380

Adinekoak zaintzen, portalak garbitzen edo sukaldari laguntzaile lan egiteko prest. 637 074 529

Pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeak eta tabernak garbitzeko prest. 943 901 752

Banatzaile, zamalan eta garbiketa lanetarako prest. 666 107 260

Sukaldari laguntzaile lanetarako, nagusiak zaintzeko edo tabernak garbitzeko prest. 677 250 560

### Eskaintzak

15-30 urte bitarteko mutil gaztea behar da larunbat arratsaldeetan (18:00-21:00) beste mutil gazte bati konpainia egiteko. 615 787 118

Sukaldari laguntzailea behar da Eibarko taberna bateko. 620 810 120

## ETXEBIZITZAK

### Salmenta

Etxebizitza saltzeko premia! Zenbatekoa negoziagarri. Bernardo Ezenarro 4,1.C. Trastelekua eta garajea ditu. 943 740 140

### Alokairua

Alokairuko etxebizitza merke baten bila nabil Elgoibarren. 628 014 327

## GARAJEAK

### Salmenta

Garaje itxia salgai Sigmako industriagunean, ehiza eta arrantza dendaren azpian. 28 m2 eta bi solairu. Oso zabala. Autoa eta motoa gordetzeko lekua, garbitokia eta bainugela. Sarrerako ate automatikoa urrutiko agintearekin. 651 525 602

## LOKALAK

### Alokairua

Elgoibarko erdigunean taberna-kafetegia emango nuke errentan. 605 741 485

## BESTELAKOAK

Idotorbe elkarteko bazkide partaidetza salgai, oso modu onean. 943 742 586

Karro-denda salgai (Wolden Altamira). Egoera oso onean. 4-6 toki. Osagai guztiak barne (hozkailua, sua, bi kutxa...). 1.800 euro. 615 734 462

Hiru hilabete eta erdiko bi katu emango nituzke opari. Ondo zainduko dituen norbaitentzat. 943 740 687/629 434 161

Bigarren eskuko Venus 4 sport etxeko elbarrituentzako motorra salgai. 675 711 860



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**
**☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net**

NORFO SL

**Jakin nahi nuke atari edo komunitate-garajetik sarrerarik ez duen merkataritza lokal batek derrigorrez ordaindu behar al duen komunitateko aseguru-poliza, nahiz eta jabeak bere lokalaren aseguru pribatua eginda izan.**

Erantzukizun zibileko aseguruak jabeen erkidegoarengan eragina izan dezaketen arriskuak babesten ditu, baldin eta hirugarren bati ohiz kanpoko erabilera edo elementu zein zerbitzu komunetan sortutako kalteen eraginez ordaina ematera derrigortuta badago. Era berean, eraikina suntsituz gero, jabe guztiek, baita lokalenek ere, kalte-ordaina jasoko dute.

Beraz, aseguru-prima beharrezko gastua da eraikinaren bizigarritasun egokirako. Gainera, kontuan hartu behar da zenbait autonomia erkidegotan komunitate-asegurua kontratatzea derrigorrezkoa dela.

Komunitate-asegurua beharrezko gastua bada, legeak ezarritako gastu banaketa erregimen orokorraren arabera, komunero guztiek, inolako salbuespenik gabe, parte hartu beharko dute hortan, baita etxabe edo lokalek ere, nahiz eta eraikinaren zaintza eta mantenu gastuetatik kanpo egon eskrituretako datuen arabera.

***AHOLKUA:*** Lokal bakoitzari partaidetza kuota bat dagokio elementu komunetan eta ezin dio uko egin. Kontratatutako polizaren helburua da elementu komunetatik datorren erantzukizun zibilak babestea, ez jabetza pribatibokoak partikular gisa. Izan ere, etxebizitza edo lokal bakoitzak bere segurua izango du. Baina horrek ez du salbuetsiko komunitate-instalazioei dagokien aseguru orokorra kontratatzetik.

*__ROSA Mª PINTADO:__ Etxaldeen Administraziorako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

administradores

## ZORIONAK ZURI



Zorionak, **Maider**, abenduaren 12an 9 urte bete zenituelako. Zure guraso, familia eta lagunen partez.



Zorionak, **Uxue**! Hamaika urteko *señorita* eginda zaude. Muxu handi bat etxekoen partez.



**Nahia**, azkenean iritsi da hainbeste itxarondako eguna, Igandean 3 urte. Muxu handi bat etxekoak, bereziki Hodei.



Zorionak, **etxeko artistari**. Atzo 7 urte bete zenituen! Besarkada handi bat etxeko guztien eta bereziki Rokeren partez!



Ongi etorri, **Danel**. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki Ekainen partez.



Zorionak, **Oinatz**! Azkenean bete dituzu 6 urte! Zorionak etxekoen eta bereziki Unaxen partez.



Zorionak, **Maria**, zure 6. urtebetezean. Muxu asko etxekoen partez.



Zorionak, **Maddi**. Igandean 6 urte bete zenituen. Muxu potolo-potolo bat aitatxo, amatxo eta batez ere Iratiren partez.



Zorionak, **Beñat**. Abenduaren 11n 5 urte. Patxo potoloak arreba Malen eta lehengusina Maddi eta Garazik.



Zorionak, **Intza**! Egun handi bat pasa dezazula abenduaren 29an. Muxu handi bat etxekoen partez.



Azkenean iritsi da zuen eguna. Zorionak! Muxu handi bana familiakoen partez.



Zorionak, **Maria eta Oihan**, asteazkenean 13 eta 4 urte bete zenituztelako. Muxu handi bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Nere eta Beñat**, laster ospatuko ditugu sorgintxoaren lehenengo urtea eta txapeldunaren 3 urte handiak! Muxu bana etxekoen partez.



Zorionak, **Markel**. Abenduaren 14an 3 urte. Muxu handi bat familiakoen partez.


IRIONDO KIROLAK
San Frantzisko, 37 - Tel.: 943 74 09 56 - ELGOIBAR
Gabon zoriontsuak!
San Frantzisko, 37
Tel.: 943 740 956
ELGOIBAR

URKIOLA TABERNA
URKIOLA
Silvia Fernandez
San Frantzisko 8, behea
943 046 209
PINTXO ETA RAZIOAK
Gabon zoriontsuak!

INPRIMATEGIA
Jasone
San Ignazio,1 - 20870 ELGOIBAR
T. 943 53 17 45 • jasone@jasonesg.com
www.jasonesg. com
Jai zoriontsuak eta urte berri on!





ESTOPAERI
PILATES ZENTRUA
San Roke kalea 30, 7 behea

ASTEBURUETAKO JARDUERA BEREZIAK

- Abenduak 19: Aereo Yogarako hastapen tailerra Anya Yogarekin.
- Urtarrila: Mugimendu eta garapen ikastaroa. Ekialdeko dantzen ikastaroa garapen pertsonalarekin eta Pilates monitoreentzako mintegia Fitpilatesen (fitpilates.com) laguntzarekin.
- Urtarrilak 16: Pilatesera egokitutako postura balorazioa (5 ordu) eta ariketak softball edo uztaiarekin (2 ordu eta erdi).
- Urtarrilak 17: Foamroller (2 ordu eta erdi), fitball (2 ordu eta erdi) eta ariketak bikoteka (2 ordu eta erdi).
- Otsailaren 19tik (ostirala) 21era (domeka): Nila landu patologiak pilatesen.

Izena emateko: 635 199 151 Natalia

## 18 BARIXAKUA

**16:00** Patinatzeko pista. Urtarrilaren 10era arte. 11:00-13:00/16:00-20:00. Lekueder parkean.
**20:00** Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. Parrokian.
**21:30** Zine-foruma: *Las mujeres perfectas*. Haizea. Kultur Etxean.
**22:30** Antzerkia: *Bohemioen kluba*. Taupada antzerki taldea.
**22:30** Zinema: *Mother*. Sutegixan.

## 19 ZAPATUA

**10:30** Parrokiako jaiotza. Astegunak: 17:30-20:30. Zapatu eta jai egunak: 10:30-13:30/17:30-20:30.
**11:00** Aurpegi margotzea, izenak arabiarrez idaztea, jaima, gozo eta jaki arabiarrak... musikaz lagunduta. Mendaroko enparantzan.
**11:30** Plazako dantzen ikastaroa. Sutegixa gaztetxean.
**23:30** Miguel Vigilen komedia. Tantakan.

## 23 EGUAZTENA

**11:00** Gabon kantak. San Lazaron.
**17:00** Bingo berezia. San Lazaron.

## 24 EGUENA

**10:00** Olentzero eta Gabon kantak Gaztelekukoekin San Lazaron.
**11:00** Olentzero eta Mari Domingi eta Elgoibarko Izarraren tonbola. Kalegoen plazan.
**11:45** Meza. San Lazaron.
**18:00** Olentzerori ongi-etorria. Mendaroko Trinitateko egurrezko zubi ondoan. Ondoren, Gabonetako ipuin lehiaketako eta postal lehiaketako sari banaketa.
**18:45** Kalejira. Udal Musika Banda.

## 26 ZAPATUA

**Egun osoz,** Gabon Zaharretako feria. Informazio gehiago: *www.barren.eus*
**11:00** Gabon parkea: puzgarriak, jolasak, wipe out... 11:00-14:00/16:30-19:00. Mendaroko ikastolako jolastokian.
**22:00** Trikipoteoa. Plazatik hasita.
**00:00** Erromeria, Bide Batez taldearekin. Sutegixa gaztetxean.

## 27 DOMEKA

**Egun osoz,** Gabon Zaharretako feria. Informazio gehiago: *www.barren.eus*
**11:00** Gabon parkea 11:00-14:00/16:30-19:00. Mendaroko ikastolako jolastokian.

## 28 ASTELEHENA

**16:30** Txokolate jana eta Haitiko haur bat *apadrinatzea*. San Lazaron.
**22:00** Bertso jaialdia. Herriko Antzokian.
**22:30** Zinegiro goritan: *Okupa: Cronica de una lucha social*. Sutegixa gaztetxean.

## 29 MARTITZENA

**11:00** Gabonetako gozogintza tailerra. San Lazaron.
**18:00** Parrokiako abesbatza. S. Lazaron.
**19:00** Literatura tailerra. Sutegixan.
**22:30** Zinegiro goritan: *Hedwig & the Angry Inch*. Sutegixa gaztetxean.

## 30 EGUAZTENA

**11:00** Jolasak. San Lazaron.
**17:00** Bingo berezia. San Lazaron.

## 31 EGUENA

**00:01** San Silbestre lasterketa. Mintxeta Atletismo taldea. Kalegoen plazan hasita.
**11:45** Meza. San Lazaron.

## 2 ZAPATUA

**11:00** Gabon parkea. 11:00-14:00/16:30-19:00. Mendaroko ikastolako jolastokian.
**16:30** Argia taldearen bisita. S. Lazaron.

## 3 DOMEKA

**17:30 eta 18:30** Pirritx, Porrotx eta Marimotots. *Amalur*. Herriko Antzokian.

## 4 ASTELEHENA

**17:30** Musika eskolakoen kontzertua. San Lazaro egoitzan.

## 5 MARTITZENA

**11:45** Meza. San Lazaron.
**17:00** Urteko ekintzen argazkiekin ibilbidea. San Lazaron.
**17:30** Jaiotza biziduna. Kalegoen plazan.
**18:00** Erregeen kabalgata.
**18:45** Erregeen bisita. San Lazaron.

## 6 EGUAZTENA

**11:30** Meza errege magoekin. Parrokian.
**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua. *Suite Sinfonica, Concerto D'Amore, Second American Folk Rhapsody, Diarios de la Mañana, Ferurfest polka* eta *Eizzugsmarsch*. Herriko Antzokian.

## Zinea
(Herriko Antzokian)

**'8 apellidos catalanes'**
19 Zapatua, 19:00
22:15
20 Domeka, 19:00
21 Astelehena, 21:30

**'Hotel Transilvania 2'**
20 Domeka, 16:30

**'El Becario'**
25 Barixakua, 21:30
26 Zapatua, 19:00
22:15
(Jatorrizkoa azpitituluekin)
27 Domeka, 19:00

**'El viaje de Arlo'**
27 Domeka, 16:30

**'Los juegos del hambre-Sinsajo 2)**
1 Barixakua, 21:30
2 Zapatua, 19:00
22:15
(Jatorrizkoa azpitituluekin)
3 Domeka, 19:00
4 Astelehena, 21:30

**'Capitan dientes de sable'**
3 Domeka, 16:30

**'El puente de los espias'**
8 Barixakua, 21:30
9 Zapatua, 19:00
22:15
(Jatorrizkoa azpitituluekin)
10 Domeka, 19:00
11 Astelehena, 21:30

ARBELOA
INMOBILIARIA
www.inmoarbeloa.com
Gabon zoriontsuak!

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

**09:00 - 22:00**

18 Barixakua ETXEBERRIA
19 Zapatua FERNANDEZ
20 Domeka FERNANDEZ
21 Astelehena YUDEGO
22 Martitzena ORUESAGASTI
23 Eguaztena BARRENETXEA
24 Eguena ORUESAGASTI

25 Barixakua ORUESAGASTI
26 Zapatua ETXEBERRIA
27 Domeka ETXEBERRIA
28 Astelehena FERNANDEZ
29 Martitzena YUDEGO
30 Eguaztena ORUESAGASTI
31 Eguena BARRENETXEA

01 Barixakua IBAÑEZ
02 Zapatua GARITAONANDIA
03 Domeka GARITAONANDIA
04 Astelehena ETXEBERRIA
05 Martitzena FERNANDEZ
06 Eguaztena FERNANDEZ
07 Eguena ORUESAGASTI

**22:00 - 24:00**
Astelehenetik domekara GARITAONANDIA

**24:00 - 09:00**
ELORZA (Eibar) Juan Gisasola, 18- 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Azaroan jaiotakoak

**Maialen Agirregomezkorta Alkorta**
2015-11-06

**Unai San Martin Zubizarreta**
2015-11-06

**Iara Blanco Rodriguez**
2015-11-16

**Danel Legarreta Astigarraga**
2015-11-17

## Azaroan hildakoak

- **Fernando Ayesta Albizu**
  90 urte, azaroak 2
- **Jose Ignacio Muguruza Cendoya**
  74 urte, azaroak 4
- **Ignacio Maria Barrenetxea Ayala**
  83 urte, azaroak 5
- **Rosendo Egurrola Fdez. de Jauregi**
  72 urte, azaroak 11
- **Pilar Bernedo Lariz**
  97 urte, azaroak 13
- **Jose Maria Astigarraga Loyola**
  77 urte, azaroak 16
- **Vicente Etxeberria Agote**
  86 urte, azaroak 23
- **Angel Arocena Etxabe**
  97 urte, azaroak 23
- **Dolores Leyaristi San Martin**
  92 urte, azaroak 24
- **Primitivo Ordoñez Fernandez**
  75 urte, azaroak 25
- **Sabina Bergaretxe Ardanza**
  92 urte, azaroak 27




ETXEBERRIA tanatorioa
Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.
ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR
Telefonoak:
943 741 327 (24 orduz)
Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203
www.funerariaetxeberria.com





**Iosu Juaristi**

**Ainhoa Lendinez**



Gaztetan amak ez zigun Karakatera bakarrik joaten uzten, "badaezpada". Garai bateko esames, istorio eta beldurrak ziren. Ikasgelako leihoa zabalik zegoen goiz hartan. Ingeleseko eskolan nengoela uste dut, Mekan. Ingeles eskolak ez neuzkan oso gustuko. Leihotik Karakateko magala ikus zitekeen, eta hara begira nengoen ni, arbelera begiratu ordez. Mutil gazte bat ikusi nuen orduan. Karakatetik behera zetorren. Astegun bururi batean, ezohikoa iruditu zitzaidan, luxua ere bai. Elkar ezagutu genuenean esan zidan, astean pare bat aldiz igotzen zela. 15 bat urte izango nituen, eta Karakatera igotzeko plana egin zidan: "Arnasestuka sumatzen zaitut", esan zidan gorakoan, atzera irribarre bihurriz begira.

Nola aldatu diren kontuak, kamarada! Azaroaren hirugarren larunbatean Karakaten esnatzen da urtero eguzkia, Elgoibar argitzeko. 2012ko azaroaren 19an plazan nengoen ni ere, gainerako mendizaleekin. Frontoian, urduri. Lasterketa hasi aurretik ere, berarentzat irabazle nintzela esan zidan gaztetako lagun hark. Bideko zuhaitz batean, kartel bat jarria zidan zintzilik, animuak emateko. Urtero hartu dut parte ordutik, eta urtero izan da zerbait gogoangarria: Pako Iriondorekin argazki bat, zaintiratu bat, gazta bat, argazki bat. Aurten ahizpa falta izan zait, baina ama neukan goian zain. Horregatik agian, inoiz baino azkarrago igo naiz tontorrera. Hiru aldiz egon naiz asteon Karakaten, bakar-bakarrik. Azken metroetan jendearen animuak entzun ditut buru barruan, eta besoak zabaldu ditut, azaroaren 14an bezala, denei eskerrak emateko.

*"Azaroaren hirugarren larunbatean Karakaten esnatzen da urtero eguzkia, Elgoibar argitzeko"*

# Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

## AROZTEGIAK

**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak
Kurutz-gain industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

**IMAR**
AROZTEGIA
Olaso industrigunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com

**BIENA S.L.**
AROZTEGIA
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

Aroztegia – Carpintería
**ASIMA**
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar
687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**
AROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industrigunea, 1-O/ 1-P
943 740 547

## ELEKTRIZITATEA

**iparelek s.l.**
elektrizitatea
Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356
iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

ELECTRICIDAD
**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

**CARRANZA,**
ELEKTRIZITATEA
Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzajl@gmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

electricidad
**PEROSANZ**
www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com
Ibargain 17, AC behea
Tel.: 943 202 268
Faxa: 943 206 048
20600 EIBAR
Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
20850 MENDARO

**egoluz**
ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR
Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

## IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**
ERREFORMA ETA LEIHOAK
Urasandi, 22 behea - Elgoibar
Tel.: 605 705 204
Gremioen arteko koordinazioa.
Pladurrarekin ere lan egiten dugu.

IGELTSERITZA
**CAMILO ALVAREZ**
Jardiñeta, 25 behea
EIBAR
Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

## ITURGINTZA

**SANTANA**
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOERROTA ITURGINTZA**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

**ongi** Iturgintza
Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

FONTANERÍA
**Ibámar**
ITURGINTZA
San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

**TELLABIDE**
ITURGINTZA
Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

**ZUBIZARRETA**
instalazioak
Ubitarte plaza, 5 behea
Elgoibar
943 740 789
650 586 144

**PAGOAGA S.A.**
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com
BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com
ELGOIBAR

## LEIHOAK

**LODOSO LEIHOAK**
SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA

**BIOK**
dekorazioa
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida

# MILAR BIRE

garbigailuak

ROOMBA

Tabletak

telefono libreak

aspiragailuak

ile-lehorgailuak

telebistak

hozkailuak berogailuak

Labeak

Indukzioa

Hartu ezazu gabonetako zure aldizkaria

**www.milar.es**

Ubitarte 11 - 943 741 487 - *bire@milar.es*